



Ene Ondarru

Andoni Basterretxea





Don Andoni Basterretxea abadea 1914ko urtarrilaren 17an jaioa da. Bizkaiko Ondarrun jaio ere. Egun seinalatua ez bada gero urtarrilaren 17 hori arrantzale-herri batentzako! "San Anton, bixigu zarrak al montón".

Abade egin zen ondarruar hau. Aitak itsarorako nahi, hainbeste alabaren ondotik zetorkion semea, eta honek balio ez itsasorako. Ama gustora. Honek abade izatea nahi semea.

Soldadu izan zen 36-39 urteetan Zeutan. Abade egin eta seminaria irakasle. Irakasle gogoangarria ezagutu zuten guztientzat. Dozena bat urte egin horretan, eta misioetara: Ecuador, Venezuela... Hemezortzi bat urte He-goamerika horretan.

Honetan, Gotzaiaren deia: Ondarrun behar zuela. Eta Don Andoni bere sorterrira. Hemen beste hogeitabat urte egiten ditu parrokiaren lanean, bereziki haurrekin.

Orain, jubilatutik, zaharretxean bizi da. Hangoentzat eta kanpotik doazkeenentzat han ematen du meza. Beti bezain argi eta prestu aurkitzen da.

Ez ezazu bazter, Ondarru, zure semerik zoragarrienetako hau.

Ene Ondarru

Auspoa Liburutegia

270



AUSPOA • SENDIA

SENDIA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendia.com

editorial@sendia.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Andoni Basterretxea

Ene Ondarru

Auspoa Liburutegia
2000

© SENDOA ARGITARALDIA

ISBN: 84-95378-21-3

Lege Gordailua: NA.: 1.702-2000

Imprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Sarrera

ONDARRU! Harritu izan nauzu behin baino gehiagotan eta mirestu izan zaitut beste hainbestetan.

Eta harritu, nere bizarkideek baino gehiago, emakumeek egin naute Ondarrun. Eta behin eta birritan harritu ere.

Gogoan al duzu, Ondarru, 1950 inguru horretan nola bihurtu zinen Kantauri osoko erregin, Begoñako Ama zuregana etortzekoa zela-ta?

Zer zen hura! Nolako Ondarru zen hura! Egundaino ikusi ote da herri bat oso-osorik dena jardin bihurturik, egun haretan Ondarru bezala?

Han ez zen kalerik eta kalekantoirik eta kalezularik apaindu ez zenik. "Al dana" jartzen zuen, hala ere, Mutrikutik goazela Ondarruko zubira iritxi baino lehentxeago dagoen etxe batean. Posible al zen bada gehiagorik? Hura Ondarru Begoñako Amak bere begiz ikusi ahal izan zuena!

Nik diodana gehiegizko bederizkio norbaitek, dela ondarrutar, dela kanpoko, ikus ditzala egun haietan ateratako argazkiak. Balioko luke erakusketa bat egiteak, Ondarru hura ikusi ez zuten ondarrutarrek eta besteek jakin dezaten zer izan zen mirari hura.

Eta zeinek egin zuelako gero halako miraria? Ondarruko "andrak"! Emakumeek! Saturrarandik entzuten genituen kamioietan herria apaintzeko jenero bila zihoazen andreen kantak. Kantuan harun-

tzakoan eta kantuan honuntzakoan ibili ziren gure mirarigileak. Inguruko baso eta mendietatik ekarri zuten, herria jardín bihurtzeko behar izan zuten guztia: arbazta, goroldio, zepa eta zernahi landare. Izango zen gorritu ederra hartutako bazterrik eta soildutako zuhaitzik. Eskerrak orduan ez zegoen berdeak eta horrelakorik.

Ahalegin horri zor zitzaion Ondarru berri hura, kantuz joan eta kantuz etorri ibili zen emakume jendearena!

Eta gu harritu ginduen aldaketa harek, eta berri- eta berriago jaio bezala egin zen Ondarru harek, eta mirestu genituen mirari hura egin zuten herritar- rarak, hots, Ondarruko andrak.


Bai, Ondarru, harritu ninduzun eta mirestu zindudan.

Eta esango banizu gero eta gehiago miresten zaitudala eta, batez ere, gero eta gehiago maitatzen? Zergatik galdetzen didazu? Esango dizut zergatik.

Zuk hor kaleetan zehar gero eta gutxiago ikus- ten duzun norbaitengatik. Oraintsu arte egunero ikus zenezakeen zure kaleetan zehar bere txapeltxo ederki jantziarekin apain-apain, eta makiltxo bat eskuan, eta irripar bat eta hitz bat denentzat ezpai- netan.

Lehen “asilu” deitzen zenuten horretan bizi da orain. Belaun bizkor haiek moteldu egin zaizkio zer- bait eta gero eta gutxiago ikusiko duzu kalean on- darrutar zinezko hau.

Don Andoni Basterretxea duzu gizona. Apaiza bera. Europako lehen gerra hasi zen urtean jaioa, “bixigu zaharrak al monton” egin behar omen den egunean jaio ere. Zer arraina jaio zen Ondarrun 1914ko urtarrilaren 17an!



Ondarruk iru pitxi: eliza, Antiguako Ama eta Zubizar zubia.

Seminarioko irakasle izana duzu urte askoan, eta gehienak zuk hain maitea duzun Saturrarán horretan eman zituen. Ordukoa dugu guk gure ezagutza Don Andonirekin. Eta nolako ezagutza! Berak erakutsi zizkigun gerora idazle izango ginen askori euskarazko lehen letrak. Eta zenbat euskal kantu! Eta zenbat izar gau oskarbietan!

Gero mixioetan Ecuadorren eta Venezuelan egin zituen urte asko. Hil berria den Puri arreba ere lagun izan zuen.

Eta handik etorrita hor parrokian izan duzu apaiz beste hogeit bat urtez, Ondarru. Orain jubilatuen etxean bizi da eta han ematen du meza etxeko eta kanpokoentzat. Beraren arreba monja batek hor egiten du lan eta haren ardurapean bizi da Don Andoni.

Jaun hori da, Ondarru -Txomin Agirreren jaioterri, "Kresala"ren gertaleku-, nik zuregan gehien-gehien miresten dudana eta gehien-gehien maitatzen dudana eta zurekin apurtu ezin halako lokarritz loturik naukana.

Eta orain zure seme prestu hori, Ondarru, opari batekin datorkizu. "Ene Ondarru" du opariak izena.

Apustu hartu diozula usain izenetik beretik, zertsu izan daitekeen izen horren pean bilduta dagoen erregaloa.

Bai, Ondarru, horixe duzu, zuk pentsatzen duzun horixe ta bera. Zure seme paregabe honek eskaintzen dizun kantua da, haren bihotzari darion kantua. Zeu zaitu kantagai. Penaz eta pozez zuregan bildu zuena eskaintzera datorkizu Don Andoni, Ondarru.

Aita-amentzat zer ixuria bihotz horretan! Eta zer koadroa pintatzen duen beraiekin eta sendi osoarekin! Beha, beha:

*Egun etxeratuta ez dago poza baizik:
Berroi egunez ezin ikusi bere aitik.
Gaur osterera beragaz Antiguara pozik
Alaba txikiekin amatxo atzetik.*

Hori kantuaren ederra! Hori liluraren koadroa!
Beste nonbait bere amaren fede harrigarria kontatuko eta kantatuko du, eta andre haren poza bere seme Andoni itsasorako ez zela gauza jakitean.

Eta zure haurren bizitza kantatuko du, Ondarru, beuren pikardi, pobreza, lan, jolas eta bat eta beste. Ikus goseak nora daramatzan:

*Urdailla bete nairik igesi basora,
Sagastira dakie joan nondik nora,
Ezker eskuma edo aldatzean gora,
Ustelak laga eta zindoak kolkora.*

Eta ikus pobrezaren seinale hauek:

*Zapatarik ezin ta abarketak nausi,
Jolasean asita laster dira ausi.
Euri zaparradarik gañin bada jausi
Lepotik zintzilizka oi ditut ikusi.*

Eta lana dator gero, eskolak ederki ahaztuta:

*Pizarra ta puntero katonaz sakora,
Ikastolako gauzei egiñaz albora.
Goizetikan geroztik bolintxa lepora,
Goseak eraginda gazteik itsasora.*

Hori eta gehiago bertsoan, baina bestela ere hor ditu "umi" horiek lumaren puntan. Eskaintzen die hitzalditxo politik ere. Badu pedagogia gure Andonik. Badu... bihotza.

Eta jakina, Ondarru, arrantza eta arrantzale kontuak ditu kantagai. "Atun-arrantza" izena duen kantuko bi bertso hauek jarriko dizkizut:

*Argi eguna eta arratsera ilun,
Arpegiz poza eta barrutikan itun.
Gure izerdi dira antxoba ta atun,
Sendia bitarteko, ogia errudun.*

*Aita aurretik dala umeak tatarrez,
Seme-alabak dira amaika bat errez,
Senarra itsasora, andrea atsekabez,
Agur eiterakoan, guztiak negarrez.*

Ez da errez laburrago eta zehatzago arrantzale-aren historia egiten.

Eta zure andreekin hasi baitut, Ondarru, ez dut bukatuko berriz haietara itzuli gabe. Zerk naka-
rren?

Irakur ezazu eta kanta "Emakumeen biarrak" bertsosail aparta. Hor ikusiko duzu, preminaren preminaz, ama bat bere haurra baserri batean uzten, bera "aberatsen umeak" haztera joateko. Eta hor ikusiko dituzu, preminaren preminaz, andreak arrain-lanetan itsasora gabe. Orixeren "Gorriti'ko andreak" gogorazten dit. Hoiek emakume puskak!

Baina ez da horretan bukatzen andre horiena, Ondarru. Lan guzti horien artean irakaskuntza bat egiten dute. Hona, hona, bi bertso txo:

*Ikasi nai dabenak kantu edergarri,
Betor merkaterpera arratsalde sarri.
Sare-konpontzailleak garbia eztarri,
Entzun gura badozu alboan ezarri.*

*“Zeruak eta lurrak” arratsalde baten,
“Maitezkoak kantatzen” urrengoan eten,
“Azken juiziokoak” garizuman sartzen.
Orra soinu ederrak sareak konpontzen.*

Biba Ondarruko andrak eta biba horiek horrela kantatu dituen Andoni Basterretxea jauna!

Bertsoz eta bestela esanik, hamaika gauza polit ikasi ahal izango duzu liburuxka honetan, Ondarru. Baina, batez ere, zeure seme zintzo, euskaldun eta maitagarri bat ezagutu ahal izango duzu.

Gora Ondarru holako semeengatik!

Gora Don Andoni Basterretxea jauna.

Joxe Mari Aranalde

Zenbait oroitzapen

Zenbait oroitzapen

Kantuan

Kantuan hartu ohi zaitu oraintxe ere Andoni Basterretxeak. Bere gisa ere kantuan ari ohi da askotan. Ehundaka dakizki buruz. Baina etxetik urruti aldi luzeak egin dituelako edo, iparraldeko au du gogokoena:


Maitatua sobera nintzelarik haurra,
Ez nekien nik zer zen amaren beharra.
Bortu batean orain naiz bakar-bakarra,
Amaz oroit orduko heldu zait nigarra.

Txikitan

Kantu batzuk abestu ondoren, bere bizitzako zenbait oroitzapen gogorarazi nahi dizkiogu, haurtzarotik hasita.

«San Anton, besigu zarrak al monton». Urtarri-llak amazazpi zitula, milla bederatzireun ta amalau-garren urtean jaio nintzan Ondarroan.

Jaiobarriak etxera dakarren pozaz gaiñera, ene etorrera bereziko grazia izan zan aitarentzat. «Mirentxu» itsas-lurrun-ontziaren buru zalarik, seme baten ames eginda, ezkondu ta amar urtera lau emakumegaz inguratuta ikusi eban bere burua. Beraz etzan arritzeko, «gizontxu» baten albisteagaz ar-tu eban poza!



Andoni Basterretxea mutikoa, txapela buruan, hirugarren
lerroan, laugarrena eskuinetik hasita.

Ama, sei urtegaz umezurtz ta amalau urterarte artzain, gorriak ikusita, biotz bako amandrearen eskutik aterata ekarri eban osabak «Urkarregi» base-rritik Ondarroara, bere senideekana. Etxe on baten neskame poz-pezik, antxe ezagutu eban bere bizitzako lagun zintzo zan nere aita.

Naigabe ta kurutze astunagaz ongarritutako baratzak ezin eikian inundik be emaitza ederrik emon gazterik il da. Bederatztitik bost eskini eutsezen Jaunari: iru lekaime, abade bat eta mixiolari laguntzaillea. Beste irurak, amaren babesean arturiko kristau arnasari esker, guraso zintzo ta jatorrei dagokienez ereduzko bizitza on bat eroan dabe.

Jaungoikoak gizonari egin leikion doairik edo eskerrik aundiena, guraso kristau zintzoen babesean jaiotzea da.

Atzo balitz bezala gogoratzen da eskolako irakasleekin eta kontuekin.

Lau urtetik aurrera izan nebazan irakasleen artean, Gurutzeko Alabak, gorengorenak. Lenengo Gure Jauna artu aurretik, eurak izan jatazan nere aingeru jagoleak: ama baten gisan zuzendu ta irakasle onenak lez ondo irakatsiaz, eziketako lenen erakutsiak be eurakandik artu nitun. Beti, baiña, oraintxe, egalak makalduta, egan ezin egin daben txorien antzera nagon urteetan, ontxe batez be ezagutzen dot, areik nire biotzean bizitza guztirako josi eusten kristau gizon-ikurra. Sor Luziak, batez be.

Egia esan, lenengo urteetan, bederatzi urte bitarte, ez neban ezer aurreratu. Ia-ia berrogei urte irakasle ta BBVko zuzendari; naikoa eban don Pedro Leibarrek, naizta zigorra errez ta gogor erabili, eunda ogei ume ixilik eta prest eukitzea.

Ez naiz sekula aspertuko don Jose Basterra goratzen. Ez eban aukerarik galtzen zer edo zer erakusteko: Ozeaniako mapan ugarteak irakasten ego-

ela, «mekatxis» urten eustan bertan egozan ugarteen izenak entzundakoan. «Andoni», esan eustan, «artu egizuz orreik izenok ingi baten, ta biar, buruz esango daustazuz». Bai ondo ikasi be. Gaur bertan oraindik askotan urteten daustaz. «Mekatxis la sombra»: Marianak, Palau, Karolinak, Marshall eta Gilbert.

Aren aurrerapenak etziran eskertuak izan berandurarte. Ondo ta sakon erakutsiagaz gaiñera, eziketari buruz, zigorra neurritz erabiltzeagaz batera, berak ataraten ginduzen pelotatikira jolastera ordulaurden bat. Berak aukeratu nindun amaika urtegaz «Aurrera Jolas Elkarteak» gertuta eustazan «Aitona ta billoba antzerki»an billobarena egiteko. Bere irakasle bideak zabalak zirela erakutsiz, iru bider eroan ginduzan, orduan iñork gogoan be ez euzkezan Atxurrako aitz-zuloetara.

Ala ta guztiz be, gorago aitatu dodanez bere aurrerapenak etziran onartuak izan lenengo aldiz: asi barri ta naiko luzaro, umeak pelotatikira urteten eben bakoitzean auxe besterik etzan entzuten aurrez aurre egozan leioetatik: «ortarako bialtzen doguz gure umeak? Kanpora atarata jolasean ibilteko?»

Baina bihurrikeriak ere egina izango zara, noski?

San Pedrotik San Jeronimo bitarte, a zelako bizikera gurea! Gure arrantzale aitak illabete osoan etxetik kanpora ebiltzazan bitartean, zenbat jolas, zenbat igari, zenbat eta zenbat lapurreta txiki!

Diru asko irabazi ez arren, berrogei bolintxerori eskerrak ez jakun falta etxeetan sardiña ta txitxarrorik. Ala ta guztiz be, naizta ondo zainduta egon baserri enparauak, ez gendun bildurrik izaten, or-emen Ondarru inguruan ondo zabaldua egozan sagastietan kolkoak sagarrez betetzeko; noizik bein, ixil abaroan baserri atariko piko, intxaur ta kerexak artuaz.

Arriskuan dabilena noiz edo noiz jaustea arri-
tzekoa ez dala-ta, salatari bat bitarte epaitu gindu-
zan bost lagun txalet bateko jabeak. Gure pekatua,
bere lorategian lenengo lora batzuk eta gero iru-lau
madari ostea.

Santa Klara egunez, amabi urteko mutikoa,
goizeko seiretan meza entzun ta sarreran, udaltzai-
ñaren zigorkada artuta, zuzendu ginduzen erri-kar-
tzela zan lengo ikastoletako ganbarara edo tellatu-
pera. Soka bat bitarteko, udaltzaiñak kontuan jausi
aurretik, lapikokorik izan ezik beste ostontzeko jate-
koa ugari izan genduzan, aguazil txikiak gora ta be-
ra ebillen soka ikusi ta ebagi euskun arte.

Zineko artista

*Kontu-kontari ari garela, beti atera ohi da berri-
ren bat: zineko artista izan zela esan digu oraingoan.*

Ondarrutarrak estropadetako gertuten egozan
urtean zan. Udaran ta beti lez erdi billotsik gebiltza-
zen baten: «*La sirena del Cantábrico*» pelikula egite-
ko Elkartean, artisten buru egiten eban Jose Nietok
begiz jo ta aukeratu ginduzen bertako nagusiak
amabost mutil koskor.

Gure aurreneko ekintza euren esanera ondar-
tzako barra-musturretik dsangadaka egitea: egin be
pozik egin ginduzan aste osoan. Kukaiña zan eurek
buruan ebilen ikusgarririk onena. Ori zala-ta,
urrengo astean, orduko portu-kaia zan Zubizar au-
rreko erre kara aldatu ginduzen.

Guk ondo be ondo genkien, gure arteko iñork
ez ebala ikurrin-zapirik artuko kukaiñan. Zineko
gauzak. Esan eta izan, alperrik alegiñak, an gera-
tzen giñan amabostok erdi-erdizka, uretara jausten
giñala, nagusiak agindutako bultzadakaz. Artista
nagusiak, barriz, jausteko kiñuak eginda be, aurre-
ra egiten eban kukaiña irabazi arte.



Andoni Basterretxea, txistua eta danborra, kanturako eta dantzarako beti prest.

Beste iru-lau egun, euren artean egin ondoren, danontzako beste lanik ez egoalata, geure arteko bat, «Bibillo», artu ta gelditu giñan besteok aozabalik. Baiña sari baten itxaropenez pozarren gengozan, andik laster deitu euskuenian. Amar bat egunez atzetik ibilli, nai beste dsangada egin, kukaiñan alegiñak eginda gero, esakera batek diñon lez «erriala ez dator beriala», eskutan errialtxo bat genduala geratu giñan! Ondo irabazitako erriala bai axe!

Ala ta guztiz be a zelako gozamina gurea andik lau urtera «*La Sirena del Cantábrico*» Ondarrura ekarrela entzutean. Bai, ekarri eben askoren atsegiñerako, baiñan guk ez gendun pozik izan. Lenengo ta bein zine-pelikula artan, naizta kalatxori antzo dsangadaka ikusi nork bere burua, erdi ilun ta urruti ikusten zan lez, ez genduzen ezagutu geure buruak. Era berean kukañako gure ekintza utsa agertzen zan. Baina zineak eskatzen ebanera artista nagusia kukañan ikurriñ-zapia artzen agertu zanean, argi ta garbi, etzan makala izan an urten eban zaparrada.

Andoni ez zen indartsua, baina bai arina eta bizkorra, mendian ibiltzen, korrika, futboleant, pelotan eta zernahitan. Futbolari ona zen, jakina. Baina pelotan aurrelari aparta, pelotalekuko xagua izan, nonbait, txikitatik.

Oberik eziñean, etxean, arreben tarratadun gal-tzerdi batzuk artuta biribiltzen genduzan gure artilezko lenengo pelotak. Naizta pelotatoki ederra euki Ondarruk, amalau-amabost urte bitarteko mutil koskorrak etziren pelotatoki egoki baten jabe. Udaran, arrantzaleak atunetara juaten ziran egunetan orratxiok nai beste aukera izaten genduan. Orduko urtetan erri guztitan ikusten zan pelotazaletasuna, baiña Ondarrun batez be ez egoan pareta edo orma zabalik pelotarako egokitzen etzanik. Etzan diru asko jokutzen, baiña inoiz asarre gogorrek sortzen zituela biñakako jokoak, bail

Nik lenengo aldiz pelota plazan egin neban norgeiagoko lenengo jokoa amabi urtegaz egin neban. Zaarren omenez antolatutako jai baten izan zan. Bikote biok zortzinako berdinketan gengozala bukatu zan euri zaparrada baten ondorioz.

Ondarrun, apaizgaitegian, ta abade izan aurretik, «Acción Católica»k jarten zitun errien arteko norgeiagokan, baten baiño geiagotan erabilli ninduen. Orratxiok guztien artean aztu eziñezkoak, Akarregi, gero pelotari entzutetsu izango zanaren aurka jokatutakoak. Ori dala-ta ez dot aztu, urte asko gero, Jose Luisek (Akarregik) nigaz euki eban eskertu eziñezko joera bat.

Gallastegiaz azken pelota jokoa galduta laster, gizon on bat bitarteko gendula, agertu jakun Akarregi, ni irakasle nengoan Saturraranen, beste edozein pelotari izango balitz lez, apaizgaiei poza ematera. Ogeitabirako joko polit bat eskini genien bera bitarteko ara urreratu ziren guztiei.

Pelotako azkeneko ekiñaldi gogorra, Azkoitin, Atano irugarrena epailari zala, jokatu gendun Don Austin eta biok, Etxaniz bigarrena aurrez-aurre gendula. Ezin aztu pelota aitatzen dan bakoitzean Apaizgaitegian sarri-sarri egiten genduzan pelota jokoak, batez be Saturraranen, udara denporan antolatzen ziran norgeiagokak.

Abadegai Saturraranen

Aitak ez zuen Andonirekin itsas mutilik. Andonik ere nahiago zuen Saturrarango apaizgaitegira joan ikastera.

Itsasorako gauza ez ondarrutar gazte bat? Zortzi-bederatzi urtez etxeko «Mirentxu» lurrun-ontzian egindako alegiñak ondo urten ezta. Itsas ertzean (barruko kaletan, Erbitxu, Deba-kabra, Sagustxu)

goiz ta arratsalde egiten zan ordu biko bolintxero arrantza aukeratu eustan aitak, itsasorako gauza nintzanentz ikusteko. Urtebeteko itsasorateak leku-ko, alperrik aitaren naia. Bolintxero ontziko jabeak, «Txanbolin!» deituta, «itsasotik ez deutsu onek gauza onik ekarriko». Zazpi seme-alabatik bat bakarra mutila, begiz jota bera, ta gauza ez. Aitaren naigabea, amaren poza!

Itsasorako gauza ez ta ikaskuntzarako aukera barik, arreba nagusia lagun ta kontulari batek apur bat zirikatuta biribildu eban amak urtetan kolkoan, biotzean, Jaunak ereinda indartzen eukan amesa. Aukera (Jaunaren naia) obarik ezin: iru urte lenago Andoaindik Saturraranera aldatutako apaizgai etxea baiño.

Azterketa baten ondoren antxe asi nebazan abadetzarako aurreneko lau urteak.

Ingurura begiratu, ta eskola ta ikastetxe nagusiei buruz entzun ta ikusten diranak gogoan arturik gure orduko giroa ames bat zala esan bear.

Egia esan, urte areitan izan genduzan irakasleak (Lorentzo Bereziartua Gipuzkoako gotzain izan zana, Zeferino Sarasola ondorengo urteetan erreto-re, Alberto Onaindia «aita Olaso» eta abar) banan-banakoak zirala ezin ukatu. Gaur, jakiña, askok ez dabe ontzat emoten orduko egoera zietza edo zorrotza.

Gauzak orlan, lenengo urtea etxetik egin neban. Amamagaz batera, goizeko seiretako meza entzun ondoren, zuzentzen giñan gero iru ondarrutar egunero Saturraran aldera, bertan eguneroko eginbearrak bete ta arratsaldekoa eskutan artu ta seirak aldera etxeratzeke.

Gaiñontzeko iru urteak barruan egin nitun. Azkenengo urtean, beste urteetan ez bezala, Seminarioan emon genduzan uste bako Gabonak. Ez jataz



Filosofiako bigarren urtekoen futbol taldea, 1934an, Andoni lurrean etzanda.

aztuko sekula giro aretan alkar poztuteko egin genduzan alegiñak.

Zelan igaro etxetik kanpo Eguberriko amabost egun! Ala ta guzti, batetik jokoak, bestetik abesti eta batez be antzerki ekintza sakonaz poz-pozik igarro genduzan. Neuk beintzat, Ondarroan umetan iru-lau bider gauza orretan ekin nentzala-ta, neure gaiñera jausi jatan lana, poz-pozik artu neban. «Pastor y borrego» ta «Trampa y cartón» izan ziren nik egile nagusi lez ikasi bear izan nebazanak. Gaur ez neukez aldabatera buruan sartuko orduan ikasi nebazan ainbeste gauza.

Oiturari jarraituz, bosgarren urterako, latinezko azken ikasketak Gasteizko apaizgaitegi nagusian egiten ziran. Ez neuke nai ementxe alboratu Jaunagandik artu neban esker aundi bat. Naita, diñoenez eskrupuloez gaxo izan, neuri beintzat sinismeneko begiak argituz, gogo arazoetan biotza zabalduz, Jau-naren deia onartu ta sakontzen asko lagundu eus-tala ezin ukatu. Orretzaz gaiñera gizontasunari begira ezin nekien aurkitu lagun, irakasle eta zuzen-dari obarik.

Urte areitan gure gidari izan ziren irakasleei buruz gaur egun Euskalerrian euren omenez egiten direnak kontuan artuta, ezin doguz aitatu barik utzi. Gizon zintzo ta apal, jator eta biozti, buru ta biotz josi euskuezan euren irakatsi zabal, sakon eta errikoiak Joxemiel Barandiaran eta Manuel Lekuo-na jaunek. Irakatsi egitarauetatik kanpo zenbat al-karte etziren sortu. Euskerari buruz beintzat bein baiño sarriago jaso ebazan idazlan sariak: Otamen-dik eta Sukia kardinalak Lekeitioko ekinaldian aurreneko ta bigarren sariak lortu ebezen.

Bertako abesbatza Euskalerrri osoan gorengo mallan egoan. Jolasean berdin. Eskuz eta ostikoz ez egoan urreik emango eutsan ikastetxerik.

Eta Elizari begira, Elizak orduan eukazan kez-

kak gogoan artuta, Gasteizko apaizgai etxearen erantzuna ezin eitekean obetu: orduantxe sortu, indartu ta biribildu zan geroagaz Elizbarrutiak, erriagaz batera, bere ardurapean artuko eban Los Riosko mixio-lurra.

Etxearen egokitasuna, aitatu doguzan irakasle, elkarte ta ostontzeko aurrerapenak gogoan artuta gogo oneko apaizgai batek ezin eikean giro obarik aurkitu, abadetzako bidean.

Afrikara soldadu

Teologia ikasten hasi orduko soldaduskara joan beharra heldu zitzaion

Urtetan aurrera ta soldadutzarako zozketa gaiñean nebala, 1935-36ko ikasturtean, ekin neutsan Teologiako aurreneko ikastaroari. Azaroak irugarren domeka ta eguneroko azken otoitzarako bidean neu lez zozketa ardura eban Karlos Angoitiak lepoan joaz: «Andoni», diñosta, «zorionak, aske gagoz».

Urrengo goizean barriz zelaira urteterakoan, beste barik eskua luzatu ta asteleneko izparringia emon eustan Mitxelenak. Gerri-gerritik lotuta agerzen nintzan. Soldadutza beldurgarriena: Afrika.

Lenen biotz-ikara gaindituta, Jaunari eskerrak, Afrikarako deia eldu arte bertan jarraitu gura izan neban, betiko lagun artean.

Gabonetako elizkizun ederraz gaiñera aurkezten ziran antzerki, abesti eta ostontzeko agerpenean parte artu neban. Oiturari jarraituz, Gabon-abestiak ere dantzatu nitun Mateo Muxika gotzain jaunaren aurrean.

Urtarrillaren azkenean, 22 urte bete barria, etxeratu nintzan. Etxean igaro nebazan iru-lau egun. Gogoan daukat amaren betiko sinismena. Be-



Afrikan soldadu, 1938an, bere lagunekin. Andoni belauniko, soldadu jantzitakoaren eskuinean.

rea eban «Perpetuo Socorro». Ez dakit nundik. Bizkaian ez da «Perpetuo Socorro»ko Andra Mariari eskainitako parrokiarik. Etxeko egoerari aurre egin naian, baserri ezagun batean bere aurra lagata, iru-lau bider aldendu zan ama, bere bularreko esne goxoagaz aberatsen baten aurra azteko. Zaragoza, Miarritze ta Parisen egona, ez genduan jakin nundik norakoa eban Amabirjiña orrenganako oneraspena. Larrialdi guztietan Berorregana jotzen eban. Nire soldadutzarako zozketa zala-ta, seme-alaba guztiak inguratuta egin eban bederatzaurrena. Alperrik! Itxura batera, ezin jatan okerragorik jazo. Eta lengusiña batek uts egin eutsala oraingoan esan eutsen. Ala be, ez eban erantzunik gabe laga: «Iñork ez daki orixe obe izango danentz».

Otsailak sei zitula Bilboratu nintzan, 1936an. Pedro Bengoa lagun onaren etxean artu ninduen. Orduantxe ezagutu neban apurtxo bat lenengo aldizgure Bilbo. Bilbotik Madriderako ibilleran izan nitun soldadu lagunak ezin dodaz aztu gaur be. Euretari-ko bat orduko txirrindulari entzutetsua: Urbano Bautista. An ziran berorren lengusu bi be. Eurok izan ziran, guda asi ta laster, Tetuanen lenengo egunetan fusilatu zituezenak. Beste bat oster, Bilbao Pedro, urteak joan urteak etorri, Ondarruan erro-ko zan. Oraindik bere alabak ementxen bizi diraz.

Algeciratik Ceutarako itsas ibillera eginda, kaian, bakotxa geure gudaltegietara abiatu giñan. Osasun-gudaltegian ez eusten utsik egin bertan aurkitu nitun apaizgaiek. Euretako bati esker, guda-ikasketak amaitu ta zazpi egunera, abiatu nintzan beragaz batera Tetuango gaixotegira. Bost illa-betarako.

Egia esan, naizta soldadutzan egoan, Ceuta eta Tetuan oso desberdinak ziran: Ceuta espainiarra zan; Tetuan, barriz, marrokoarra. Bertan bizi zan Rabaten egoan erregearen ordezkoa.

Sartu eta beste barik, an izan gendun aurrera-kaz, beste mundu batera aldatu giñala esan bear. Oliteko Jabier Otxoa apaizgai lagunari esker bertan egozan Karidadeko lekaimEEK egin ziguten arrera eskertzekoa zan. Euretatik lau napar euskaldunak ziran: euren artean nere lagun Otxoaren izeko.

Baiña danen gaiñetik zoragarriena, ez siñestekoa, urrengo egunean jazo jatana. Iru apaizgaiok alkartuta elizan sartzeraokan nik egin neban algargaz lagunak arrituta geratu ziran. Etzan gitxirako be. Eliza, benetan jaso ta txairoa, «Perpetuo Socorro»ko Andra Mariari eskinita egoan! Aldare nagusian egoan. Baina ez beste elizetan bezala kuadro txiki batean, irudi zoragarrian baizik. Tetuan artu eban gudaburuzagiak Aita Santuagandik lortutako eskubidea zala esan oi eben.

Zeñek siñistu! Berak zaindu nindun iru urte t'erdian. Irurogeita amar soldadutik bi bakarrik gelditu giñan gerrarra jua barik. Antxe agurtu nitun soldadutzara Seminariotik urteeran penaz agertu eustanak. Antxe agurtu nitun eriotzara igoazen nere lagun batzuk.

Zeñek siñistu! Guda urten eban errian bertan nengoan. Ala ta guztiz be, ez jakun bonba bat besterik jausi. Seminarioan geratu ziran gipuzkoar eta bizkaitarrak, berriz, estu ta larri lenengo, espetxean, gero, bear astūnetan azkenik, ildakoak iru-lau.

Ez da arritzekoa, beraz, ainbestetan burururutzen jatan amaren erantzuna: «Nork daki orixe obe izango danentz». Ama igarle.

Laugarren egunera, don Alejandro Gomez Duranek guda-osagillearen serbitzurako izendatu ninduen. Eguneroko lana: sei urteko aren semearen eziketa eta illeroko diru kontu gora-beerak eroatea.

Iñor eskertzekotan, arentzat ditut eskerrik be-roenak, gudara jua ez nintzalako. Oraintxe amar

urte, beragaz eta bere semeagaz azaldu neban zintzotasunagatik, gutun bat idatzi eustan eskerrak emoten.

Beste lan batzuk: egunero meza laguntzea, jai eta domeketarako abestiak gertutea eta seminariotik eroandako apunteak berriskustea.

Soldaduska egiten ari zela gerratea sortu.

Uztailla zan. Zeozelako durundi bat entzunda, besterik gabe, frantziskotarren eliza nagusira sartu nintzan meza entzutera. Bukaeran korura jo neban irakurtzera, sarrerako orman egoana aintzakotzat artu barik.

Urteeran, beian, ate ondoan egozan legionari biak ez eusten utzi ormara urreratzen. Etzan edozein izan be elizatik agertuko zana: Franco berbera.

Ez dakit seguru egun a edo geroagokoa zan, nere gaitxotetxera bidean, buruzagi baten esanera kaltetik alboratuta laster bonba bat lertu zan inguruan. Gerrako lenengo bonba.

Andik iru-lau illabetera gudaren aurka aurpegia emon ebenen soldadu eta ortik gorako buruzagira arteko fusilamenduez aparte, Tetuango bizitza benetan baketsua izan gendun. Ni beintzat ez nintzen azkeneko bi illabeteak arte soldadu jantzi. Baina sei illabeteko soldadutza iru urte luzatu jatan.

Ain zuzen, ekainaren 27an, Perpetuo Socorro egunez amaitu nuen soldadutza. Apaiztea ere ekainaren 27an, Perpetuo Socorro egunez apaiztea suertatu zitzaidan, Azpiri eta Belaustegigaz batera.

Sei hillabeteko soldaduskaren ondoren, berriro seminaria Teologia ikastera.

Poz-pozik itzuli nintzan seminarioara, abade egiteko. Irakasle onak genduzan Teologian. Baiña gerra aurreko euskal giroa falta zan. Joxemiel Barandiaranen eta Manuel Lekuonaren utsunea nabarmena zan. Mateo Muxika gotzainaren orde z be Javier Lauzurika egoan.

Euskara debekatua egoan. Francoren aldekoak, arro. Euskaltzaleen eta abertzaleen artean bildurra nagusi. Gordean euki bear izan genduzan gure sentimenduak eta iritziak. Abade izateko gogoz eta pozaz, barruko bizitzara bildurik eta Teologia ikastera emonda igaro nitun azkeneko urteok.

Apaizgaien irakasle

Apaiztu eta berriro seminaria, oraingoan irakasle.

Apaiz nora bidaliko ninduten ainbeste kezka eta ames, gitxien uste nuen lana artu neban: Seminarioko irakasle, Bergaran. Don Zeferino Sarasola irakasle on, euskaldun jator ta zuzendari zuzen, ustelik bako gizon osoa nagusi zala asi nintzan lanean. Amazazpi gazte izan nitun. Poz pozik juaan jatazan amar illabeteak.

Poz-pozik Bergaran, baiñan pozago artu neban urrengo urtean Saturrarana aldatuko giñala jakin nebanean. Esan eta izan. Urteetan emakume espetxe izan zan Saturraraneke zeozer baiño geiago aldatu bearra eukala ta, Donostiako espetxetik beartuta ekarritako iru-lau gizonegaz batera alegindu giñan iru-lau irakasleok be apur bat egokitu ta dotoretzen. Alegiñak alegin, urrilleko lenengo egunetan asi zen ikastaroa.

Gipuzkoa guztitik eta inguruko Bizkaiko errietatik etorritako gazteak ezitzeko sei apaiz giñan Saturraranen. Gazteak geitu-ala geitu ziran irakasleak ere. Azkenengo urteetan, barriz, irureun inguru ziran ikasleak eta amarren bat irakasle. Egia esan, ez neban gozatu lenengo urteetan beste. Hamargarren urtean agur egin neutsan, seminarioan luzaroko ez nintzala izango konturaturik.

Egia esan, Saturrarango bederatzi urteak, egingo neuke, izan jatazala neure bizitzako egunik ederrrenak eta onenak. Apaizgaien ardura ezezik, ondartzara etorten zan jendearena ere izaten neban. Ordüan ez eban «Gurutze Gorriko» zerbitzurik ondartzetan, Saturraranen gitxiago. Eta urreratzen zan jendetzak beti ekarri eustazan pozak eta buruausteak.

Ikasia asko dan arren, bizitzan osorik jokateko abade batek beste jantzi batzuk bear izango zituala ta, naizta orduko giroa ez izan egokia, mendigoizale, pelotari ta ostikokalari buruz zaletzen saiatu nintzan. Baita euskal abesti sakon eta ederrak eta euskara irakasten ere. Abesti sorta arekin liburu bat argitaratu zuen gerora Seminarioak. Sei dantzari talde ere gertu genduzan. Buruz ikasitako izarren izenak alperrikakoak zirelako, izar orreik ortzian nun egoezan ikustera ateratzen nitun gauetan.

Gogoan daukat oraindik Bergaratik Saturraranera lagun batek aldatueran esan eustana: ze, orain Saturrarango zulora?

Baiña nolako zuloa! Barrura barik ingurura begiratuta be, ze ikuspegi ederra. Zenbat ikastetxek dauke gaur Saturraranez zitun aukerak? Ikaskuntzarako barruko gelak ez ezik, gaur egunez atsedenerari begira ikastetxe batek izan bear ditun jolastokiak kontuan artuta, nork eskiñi leikigu Saturraranez bederatzi urtez izan ebazan erreztasunak? Mendigoizaleentzat ze aukera obarik ileroko ibilleretan: Mendexa batetik, Olatz bestetik, urteroko Arraterakoa aztu barik. Ta zelan aitatu ez noizik bein itsas aizeak arturik inguruko errietara itsasontziz egin oi ziran joan-etorriak: Lekeitio, Zumaia, Getari ta batez be Donostiako Eukaristi Batzarrera egindakoa.

Ara zer zulo dan gure Saturraranez. Ikuspegi lez, orra or itsas ertzean eskilantx-arri, bere oiñetan ondartzaz polik bat dabela.

Amar urte irakasle egin ondoren, illabeteko gogo jardunak egin nituen. Itsas-apostoladutzarako baietza emanda gero ao-bete ortzekin gelditu nintzan gotzainak baimena ukatu eustalako. Baina ez ninduela gogoan hartzen jakiñik, Los Riosko mixiotara joateko itza eman nion don Bittor Garaigordobil hango gotzainari.

Mixiolari Los Riosera

Saturrarandik Babahoyora mixiolari.

Saturrarango 250 ikasleak lagun meza zoragarria eman, don Zeferino Sarasola erretore jaunagandik mixio-kurutzea artu eta aldendu nintzan nere erritik; Bilbotik Bartzelonara egazkiñez, Bartzelonatitik Guayaquilera, itsasoz. Babahoyo izan zen nire erria zortzi urtetan. Abaderik gabe geratu zan «Cafetal» auzoko ardura eman eustan gotzainak. Lenengo ta bein aurretik egindako bearrak osatzea eta amaitzea zan nere elburua.

Ene burutasunak uste baiño obeto urten eusten. Eleiza bati dagokionez, barru ta kanpo jantzi ta gero Karmengo Amari eskeiñita egoan elizatxoari, ezin eikean opari egokiagorik egin, neure anai Jonen bitartez “reinako sendiak” Ondarrutik bialdu euskun garbitokiko animen bidriera baiño. Eliza ondo be ondo da, gero jatorku zan buruausteetan bihar doguzan bultzadakadak emoteko. Elizari berana emon da gero, ene lagun onenak izan jatazan karitateko lekaima bigaz, Sor Josefa ta nagusiagaz alkarrizketan nengoela, Bergara Oñate abizeneko gizontxo bat urreratu jakun, eskale itxuran. Nik zeozer eskeintzeko kiñua egiñaz batera, eskutik elduta auxe esan eustan: «ez natorkizu diru-eske. Len emen egoanari lagundu neutsen neurrian nai neuzkizu lagundu zeuri be».

Arrituta gelditu nintzan abizena entzunaz bakarrik. Arrituago, neuk neukan Kafetal auzoan elizaren babesean eskolatxo bat jasoteko ametsa agertu neutsanian. "Jauna" esanaz, ixildu eragin eustan: "asierako ogeita bost milla sukre (sukre bakoitzak hiru pezeta balio zituen orduan) ta beste ogeita bost aurrera zoiazela ikusten dodanian".

Ez zan airean lagateko eskeintza ta arratsaldez bertan, nere lagun Migel Bastidari ene poza agertuaz, nun diñosta: "olan bada biar bertatik izango dozu lagun ene anai arkitektoa. Eskeintza bi oneikin gogortuta, Jose Luis Rementeriak eta biok aste berean ekin geuntzan blokeak egiten. Lourdesko Andra Mariaren egunean. Asierarako milla naiko izango ziralata, bukatu genduan biarra, naiko makalduta, egunero 25-50 bloke egiñaz.

Ez zan alperrikako lana izan. Ikustaldi bat egitera etorri ta gure lana aintzat artuaz eskeiñitako berrogeita amar milla sukre eskuratu eustazan

Bergara Oñate, Migel Bastidaz eta Jose Luis ta bion izerdiekin emon geuntzan biar eban abiadaz naiko izan zan lenengo lau urteko ikaskuntza aurrera eroateko eskolatxoa. Gero gerokoak, ixillekoak baiña biar-biarrekoak genduzan lepoak, geure lagun ta nagusi zan Bittor Garaigordobil gotzain jaunagandik ta Arraibirengandik etorri jakuzan. Noiztik bein eskupekoak norberan illeko. Baiña zer lagun ez genduan izan katedrala egiteko eliza nagusiko torre ta ormako ondakiñekin. Ain zuzen bertatik ekarritako ladrillo pillo bitarteko jaso ziran alboetako ormak, ta horrela, geldi-geldi baiña aurrerakadak egiñaz, enparantza polit bat lortu genduan. Jaungoikoak berak bakarrik daki enparantza onetan zenbat eratako jolasak, lege zarreko proiektzioak, ezpata dantzari saioak. Berba batez, bera izan jakun ingurukoak meza ostean batu ta alkarrizketa gozoak eukiteko.

Zortzi urtera itzuli nintzen etxera bost illabete-rako. Los Riosera barik, Venezuelarako agindua ar-tu nuan. Caracaseko bizitza beste era bateko eskin-tza zan; euskaldunen artekoa. Ikastetxe aundi ba-teko aitorle izatea ez neban mixiolari lantzat artzen, ez eta Eusko-Etxeko ileroko meza eta bertako ikas-tolako lanak be. Egia esan, nere biziko mixiolari la-na amasei milla biztanle eukazan «Colonias de Co-che»ko txaboldegian. Poz-pozik hartzen ninduten. Eskerrak ipar amarikatarrei eta euskaldun osagille batzuei: jantzi ta osagai asko banatzen genituen.

Azkenik, sorterrian

Usterik gutxienean, Ondarroara itzultzeko agin-dua eman zizun don Jose Maria Zirarda gotzainak.

Nik hainbeste maite neban nire sorterria oso zatiturik egoan. Gerra ondoko asarreak naiko ez zi-rala, eliztarrak erdibi egiñak zagozan, abadeen ara-bera: batzuk ez zituezan Vatikanoko bigarrenaren ira-katsiak berenganatu; besteak, berriz, iraultzari lo-turik zebiltzan. Arazo larri a konpontzeko don Emi-liano Iturraran aukera eban Zirarda gotzainak, nai eban abade laguntzailleak eroateko abaguneaz. Bes-teak beste, ni etortea nai izan eban don Emilianok, Saturarrandik lagunak giñalako. Gorriak eta bal-tzak ikusi genduzan, baiña ez ditudaz gorabera mingarri oiek gogoratu nai.

Ni 1969ko urtarrilaren 28an eldu nintzan On-darrura, besteak baiña 11 egun beranduago. Egu-raldia bezin otza aurkitu neban eliza. Ondarruk ain berea izan dauan Kandelari elizkizunera 50 baka-rrik azaldu ziran. Baiña piskana-piskana elizara itzultzen asi zan jendea. Elizatik kanpo be lan aun-dia egin eban Emiliano Iturraran buru eban abade

taldeak: Txomin Agirre ikastola, Arrantzalien Eskola, Caritas eta abar sortu zitun.

Nik umeen ardura artu neban: katekesia, Jau-nartzeak, igandeko meza... Lenengo Jaunartzetan gaiñezka beteten zan eliza, 2.000 lagun baiño geiago. Igandero umeentzat emoten neban mezetara be 600-700 ume etorten ziran, beren guraso eta etxe-koekin. 80 neskatillez osotutako abesbatza be bagendun kanturako. Amar-amabi urtetan emon genduan meza Elizbarrutiko irratitik. Orretaz gaiñera, Gurutzeko Alaben ikastetxean eta Txomin Agirre ikastolan emoten nitun erlijjioko ikasaldiak.

Elizatik kanpo be giro ederra sortzen genduan: dantzariak, iñauteriak, kabalgatak, danborrada, udalekuak. Danborradan, esate baterako, 350 inguruk artzen zuten parte. Tafallako pasiotarren ikastetxean antolatzen zan udalekura, barriz, 200 ume baiño gehiago joaten ziran.

Lan aundia egin genduan ogei urtez, 1969tik 1989ra arte. Ez genduala erria alkartzen jakin? Pekatu ori egotzi ziguten. Guztiok alkartuko gaituen amaren semerik ba ete da? Geroak epaituko gaitu danok. Eta Jaungoikoak. Baiña alegin guztia egiñaren pozik ez digu iñork kenduko.

M. A.

Umeeekiko jarduna

Oporrei begira

UMETXUOK! Ona emen askotan esan deutsuadand gauza bat. Oporraldiak edo bakazioak bear-bearrezkoak direla, gorputzari atsedem emoteko. Baita bein baiño sarriago esan dogu, oneik egunok ez dirala ezer egin barik egoteko. Urtean egin dogunetik edo ibilli doguzan arazoetatik, beste gauza bat eskuan artzea be izan leikela atsedemik onena.

Dana dala, egin edo ez egin, gauza guztien gainetik gogoan artu bear doguna auxe da: ikastaro egunak eurak baiño be obeak dirala egun oneik geure kristautasuna erakusteko; urtean ikasi doguzan egiak, urtearen buruan ibilli doguzan Jesusen irakatsiak, ez dira umetxuok, emen geure barruan gordeteko. Gure itsas ertzeko aitz eta ondarretan eta mendiko zelaietan, igarixan edo arrantzan, txoritan edo masustatan zabiltzenian, ez dozue eukiten ez gurasoan eta ez irakasleen bildurrik. Askoz be askatasun geiagoz bizi zarien; iñork be ez dotsue esaten nundik nora ibilli: iñork ez deutsue galerazoren or-emen ibilten; orduak eta orduak daukazuez zeuek nai dozuena egiteko.

Ala ta guztiz be, zeuek ondo dakizue, Jesusen irakatsien indarrez, ezin zeinkiela egin burura datorkizuen guztia; zuen askatasunak neurri bat dabela, bai atxetan, bai mendian.

Umetxuok, neurri ori, txiki-txikitatik norberak artzen jakiten ez badau, iñork ipiñiko deuskule ez

aztu. Egizale izateko esaten neutsuen joan dan domekan. Alkar maitatu eta alkarri parkatzen ikasteko agintzen euskun aurtengo ikasbideak.

Egun ederrak benetan udako egunak, alkarrenaganako adiskidetasuna indartu ta benetako kristau maitasunaren indarrez aitz eta ondartzan, mendi ta zelaietan zeuen gizontasuna agertzeko

Oporretan aurrera

Uste dot, geuk nai baño arintxuago doazela oporrak. Illabete t´erdi emon doguz eta illabetera barriro ekingo dautsagu gure urteroko eginkizunari. Ez neban uste Ondarruko umetxuok hainbeste zabaltzen ziranik: atzo bertan agurtu nebazan Salou izeneko ondartza batera zijoazen umetxo bi: Salou, Benidorm, Malaga, Coruña, nora ez dira joan gure umetxuak. Canariasen bertan be badagoz eta zer esan ez Errioxa aldean: Haro, Briones, Labastida.

Baiña nik dakidana auxe da: Brasilen eta Argentinan, diño abesti batek, ibilten gaituk ondo, baiña beti gogotsu Ondarrura etorteko. Alan erakusten dute Tafallara joaten diranak be: pozik arantz joateko, pozago etxera etorteko.

Bere lagunekin aspertuta egoan oillanda gaztea zen. Barrizale zalarik, oillategitik urtenda, basora joan zan gauza barriak ikusteko eta lagun barriak ezagutzeko. Abere, narrazti, pizti ta mamuxekin bizi izan zan urte askotan, gogait eraginda egoan. Naita guztiak ondo artu, ez eban pozik artzen barruan, eta olako goiz baten, egun sentiagaz batera, kukurruku, kukurruku, entzutean, joan zan aringa-aringa bere lagunengana. Basoko askatasun guztiak baiño naiago eban bere lagunekin egon.

Izan be, sendi ta gurasoak ez dauke parerik.



Apaiz egin zeneko argazkia, 1943an.

Atsedernaldiak

Ona emen, umetxuok, hainbeste amets egindako zuen oporraldi edo bakaziñoak. Oporraldiak dirala ta hainbeste gauza esan eta eretxi izan dira. Milla bederatzireun ta ogeita seigarren urtean zan. Maixu edo irakasle jator bat agertu jakun Ondarruko eskolara. Irakasle ona zana ezagun eban. Bakarrik aukeran gogortxu artzen zitula alper usainekoak. Baiña denok geunkan lotsa ta itzala

Ori dala ta, aintzat artzen genduzan bere burutasunak. Ala ta guzti be, goizean amarrak inguruan eskolako atea zabaldu ta umeok pelota tokira bialtzen genduzala ta, Ondarruko amak, batez be aurrez-aurre egoazenak, ateratzen eben zaparrada ez zan makala izan. Orduko denporetan, umeak eskolatik jolasera ateratzea astakeri bat eritxoan. Izan be, errekreoaren izenik be ez genduan entzuten.

Orain amar urte osteran, eskolako buru bi kanpora atera zituezen, baztertu zituezen, Karakasko auzo baten errekreorik ez eukelako ta errekreoko denborak biar dan lez emoten ez zituezelako.

Ta pedagogiari buruz edo umien ezitasuna dala ta, itzaldi batzuk emotera etorri zan jakintsu bategen auxe esan euskun: "gogoan artu ondo, alperrik erakutsiko dautsazue asko umiei, gaur ikasitakoa bihar irakasteko gauza ez badira: gaur ikasitakoa bihar erakusteko gizon egiten ez badozue". Ta jarraitu eban: "orretarako errekreoak edo oporraldiak asignatura nagusiak edo edozer asignaturak beste garrantzi dauke".

Baiña, umetxuok, ez uste izan errekreoa edo oporrak edozer diranik, edo ezer ez egitea danik: ezer ez egitea beti izango da alperkerirako bide bat. Ba al dakizue zer dan oporraldirik onena? Urtean egiten denetik beste zerbait egitea: esate baterako, arrantzialientzako leor ta mendiak; biargiñentzat,

arrantza eta eiza; burua erabili dutenentzat esku lan bat. Ain zuzen be, atzo artu neban albiste bat Institutoko iru-lau mutillek lantegi bat goizetan bihar egiteko artu dabela. Txalogarri benetan. Edozer, alperrerako bidea erakustea baiño.

Zerbait egin oporretan

Milla bider esandakoa be barrero diñotzuet: oporraldi gorabera, oneik egunok ez dira ezer egin barik egoteko egunak. Ara, ikastaroan, egun guztian esate baterako, ikasten egon arren, oporralditxo bat eukiten dozuen lez, opor aroan be oporretan egon arren, ordu asko ez zendukie ezer egin barik egon bear: lanen bat eskuratu bear zendukie. Zer? Ori umetxuok, guztiok ez zarielez gogo batekoak, bakoitzak bere izateari dagokionez erabagi bear dozue.

Ala ta guzti be, ara neure eretxiz egin zeinkiesan lan batzuk: aitzetara zoazenok, esate baterako, mongoliño eta karramarro desberdiñak aukeratu ta euren erderazko, euskerazko eta jakintza arauzko izenak ezarriaz, maskor pillo bat egin. Ta mendizaleak zer? Bardin. Nai neuke jakin zenbat kalapitxi mota dabiltzan geure inguruan; ea nork ekarten dauztan kalapitxi mordo bat. Tafallan egon garen bitartean zenbat mamuxa ez zenduezen batzen! Ezin zeinkie bardin jokatu: aaa... ta ez noa ezer esaten zer sari edo premixo izaten daben perretxiko pillo bat erakusten deustenak.

Azkenez, aolku bat: lenengo ta bein ez zaiteze ibili kaleik-kale, jan txakurra lez, ordurik ezin emonda; bigarrenez, edonora bazoteze nagusiak aintzat artu; ta iñoren gauzak iñorenak lez zaindu; ta lagun bi asarratzen badira ez eiozue axa ipiñi, adiskidetzen lagundu baiño.

Ikasturtearen asiera

Gogoan daukazue lengo domekan esan genduzanak? Bihar asiko dozue zeuen ikastaroa. Urtetan aurrera zoazen letxeik, ikasketetan be gora begira zagoze. Ala be, biar ze izango zarienik, iñork be ez daki: tostartzeko edo atzeko, pelotari edo futbolista, injineru edo arkitektu, osagille edo abogadu. Nork esan zer izango zarien?

Ala ta guztiz, auxe da ziur esan geinkenik: ez zariela ezer be izango Jaungoikoak bakoitzari emon deuskun doaiagaz aurrera egiten ez bagara alegintzen. Jokatu diñosku San Inazioak alegin guztiagaz, guztia zeuen eskutan balego lez, baiña otoitz edo arrenik ederrenak zerura zuzenduaz, indar guztiak Jaungoikoagandik artzen doguzala jakiñik. Ez Jesusek, ez gurasoak, andereñoak eurak be ez dautsue eskatzen saririk ateratzeko, azterketan aurrena izateko be ez. Orreik guztiok, gurasoak aurrenengo dirala, auxe besterik ez dabe nai zuenkandik: biartik asita, aspertu barik, zeuen eguneroko eginbear nagusienak gogor egiteko.

Guk ez genduan izan, zuen gurasoak ez eben euki, zuen besteko laguntasunik. Ez pentsa gero zuen gaurko gurutze ori lengoa baiña astunagoa danik; ez pentsa zuek daukazuezan Zirineo edo laguntzaille asko gure gaztaroan edo gure gazte denboran izan genduanik. Gu, bost, sei, zazpi, danok giñan asko familietan. Gure gurasoak ez euken astirik bakoitzaren ardurarik eukiteko be.

Ta gure irakaskuntzak, zer? Batetik, pizarra txiki bat, puntero bat eskutan geunkela sartzen giñan. Maixu batek eunda berrogeitamar zituen. EUNETIK larogeita amabostek amabi urte ezkeroratsasora urteten eben. Itsasoa, orixe zan orduko Ondarruko unibertsitatea.

Ta zueik, zer da ez daukazuenik? Gurasoak



Aita eta ama eta bederatzi senide, 1939an, Nekane moja jantzi zenean eta Martak profesia egin zuenean.

zuei begira aoa zabalik; hogei umerentzat andereño bat eta zelako andereñoak! Liburuak edo irakurgaiak azkenengo argitaratutakoak eta egokienak; amabi urtegaz itsasora joango zarien bildurrik barrik, etxera sartu ta jana, jantziak, irrati ta telebisioak.

Umetxuok, badaukazue zergaitik eskerrak emon Jaungoikoari. Ala ta guzti be, uste dozue ez zariela ondo ibilliko biartik aurrera? Beste gauza batzuk esateko usteaz nengoan, baiña atzo bertan, ementxe geugaz dagoan umetxo batek, ea ondo ebillen galdetu neutsanian, auxe erantzun eustan: orain arte bai, baina astelenetik aurrera?

Jolasak

Naita gaur ezagutzen doguzan joko asko lenako gizaldietan erabilli ez, gizona antxiña-antxiñatik dogu jokozale. Danok dakigunez, gaur egunez oraindik, lau urtetik lau urtera ospatzen dira. Olinpiadatarara ekarten dan argi-zuzia greziko antxiñako jolas-toki batetik ekarten dan sua izaten da. Paulo deunak berak diñoskunez, kristiñauok lenengo saria irabazteko eran jokatu bear dogu. Ori dala ta, bate-ora dakarren umetxoaren lepoa olioiz igortzitzen jakon, lena-lenako burrukalarien antzera.

Naita umien artean gure gaztetako zaletasuna agertu ez, txirrindulari goraberan, gaur egun bada-goz eztabaidak. Atzo beste barik ikusi nitun eta naita asarratuta gainera, Gorospe edo Legarreta, zein izan zan ohea erabagi nairik. Erramu ta pelota goraberak alboratuta, gaur egun gizartea ankaz gora jarten daben ostikoketari buruz, zer? Munduko txapelketa amaitu ondoren zenbat eretxi, zenbat burruka! Zeuen artean be nork ez dau entzun Maradonna? Nork ez daki nun jokatzen daben Butrague-

ñok. Geure artian be egongo dira Goikoetxea atzelaririk onena dala diñoenak.

Bai, orreik gauzok ez dabe gatxik egiten, neurriz artzen diran bitartean. Ta errien arteko ezaupide eta batasuna lortzeko bitartekorik onenak dira. Baina gaur egun, Jaungoikoa alde batera utzi daben erriak, jolas-jokoak dabez euren elburu. Zergatik? Jaungoikoa kenduta, gizonak biotzean nabaritzen daben utsunea zer edo zegaz bete nai dabelako: orra or gaur eguneko benetako droga, Jainko bako errien logarri.

Gose eguna

Ez natorkizue gauza barririk esatera: ongoxe egunetan erabilli doguzan gauzak piskat arakatu bakarrik: hamabost egun dira ume misiolarien eguna ospatu gendula. Siñismenaren arnasaz, kristau goraberarik ez dakienei zeozer erakutsi eta laguntzeko. Barriro be, gaur emen jatorku gure Eliza Ama garrasi egiñaz, mundu zabalean gose dagozenen alde zerbait eskatzen.

Baiña zer da gosea? Gose gagoz batzutan aurreko egunean jan da be, oituraren indarrez ordutan jaten ez dogunean. Erdi goserik gelditzen giñan Los Riosera joan giñan lenengo misiolariak naikoa jan da be, ogirik ez geunkalako. Ta goserik ikusi doguz, etxean janaldi bat eginda gero, lurrean etzinda autse ta lurre jaten eben umetxo bi. Zelako gosea da, jan da be, esku ta oiñak meetu ta sabela puztuaz amabi ta amairu urtegaz sekulako miñez ilten diran umetxoena?

Ala ta guzti be, goseari buruz Brasileko ipar sortaldean jazo dira gertaera lotsagarrienak: ama il da gero, negarrez dago ume jaio barria, ingurukoak ez daukie ezer umeari emoteko: umea ez da luzaro



Bederatzi anai-arrebetatik: hiru lekaiame, abade bat, mixiolari laguntzaile bat, ostentzekoak guraso zintzo eta herritar jatorrak.

biziko: zergatik negarrez euki? Esan eta egin. Eskutan artu ta bizi-bizirik amagaz batera sartu dabe eta gaiñera jaurtiten dautsen lurra mutiltxo batek zapalduko dau umearen negarrak itto eta isiltzeko.

Zer? Ez Jaungoikorik, ez abaderik, ez ganorazko gurasorik, ez gozotasunik, ez eskolarik, ez osasunik, ez osagillerik, ezer bere ez, gaiñera goseak arrakalata.

Eta guk zer? Jaungoikoa deika, abadeak nai baiño gehiago, gurasorik eta ikastolarik onenak, jan-edana geiegi: zer dala ta batzuk negarrez gosez eta egarriz bizi diran bitartean, beste batzuk atustitan?

“Negarrez dagozan erriak, eziñean eta larri: arnas, egia, pakea ta maitasunaren egarri. Entzun, Jauna, beren oiua, begiratu negarrari, zure indarra emiozu, zuri deika dagonari”.

Los Riosko Misiok

Lenengo euskaldun misiolaria nor izan zan ez dakigu ziur. Onen artian, Xabierko Frantzisko dala gorengoena ezin ukatu.

Geroztik, euskal ortzian agertu diran izarrik argitsuenak, nortzuk diran esaten be, ez da errez. Izan be, ainbeste izar dizdiratsuen artean, nork aukeratu? Bai, entzuleok, eusko gogoa beti agertu jaku misiolari. Zenbat fraile eta monja ez dira zabaldu gure artetik?

Baiña an, or, emen, munduaren azkenengo mugetan, misio ekintzan ziarduen fraile ta monjak, euskaldunak ziran arren eta naita banaka batzuek emengo oiturak eurekin eroan, ezin daikegu aren misioa gure misioa zanik esan.

Ori, oraintsukoa da, gaurkoa da esateko, eta abade batzuen lana. Abadea, entzun ondo, ez baka-



Apaizgai batzuekin Aiako Harrira egindako ibilaldia, 1947an.

rrik erriko semea dalako, baita abade egiten dan egunetik elizbarrutiari edo kristau erriari lotzen zaiolako, abadea, errikoa da, guztiona; ta erriak be-rea lez ezagutzen eta artzen dauz abadea eta onen ekintzak.

Entzuleok, naita aspaldikoa izan euskaldun abadeen misio zaletasuna, milla bederatzireun ta ogeita seitik ogeita hamasei bitartean geien bat be indartu zan.

Ordutik datoz ain zuzen be, euskal elizbarrutiak misio bat bere gain, bere babesean, artzeko egin dituzan alegiñak.

Eta amesak ames, naita orduko Erromara joan-etorriak, gotzainen atze-aurrerak, lenengotan biritu ez; or jo ta emen deituaz, azkenez ate bat zabaldu jakun: "Orra or", esan eutsen Aita Santuak berberak Los Riosko lur zatia izendatuaz, "zeueik arrakalatu ta landu zeinken lurra".

Entzuleok, Aita Santuak emon euskun lor ori, eliz barrutik, guztiona da. Ontzi ori aurrera eroateko, naita aurreko ta atzeko onak euki, baten batek, erramutan edo arraunean egin bear dau: elizak, eskolak, etxeak, osagaiak, ainbat eta ainbat ekintza egin bear dan tokian.

Ainbeste buruauste, arazo ta artu-emonak dagozan leku baten, naizta misiolariak bearrezkoak izan, atze barik ez dira ezer; lepoa bihar gurutzea eroateko, geuk osotzen dogun elizbarrutia izan ezik.

Orain amaitzeko, entzun: aitatu doguzan bearrian onek bear-bearrezkoak dirala ezin ukatu; baiña errukizko ekintzak gorputzari beste, arimeari be dagokiozala siñisturik, ez egizue alperrik galdu, eta eskeiñi eiozue, goiko Jaunari eguneroko zeuen bizitza, goizetik asi ta gauerarte. Naizta zarrak ez izan, badaukazue zeuen eguneroko kezka ta gurutze txikiak misiolari baten etsigarri.

Erriaren sorkera

Umetxuok, beti entzun izan dogu, gizonak egin-dako gauza guztiak daukeela euren akatsak. Ez dago gizonik bakarrik bizi daikenik be. Gizona berez da Jaungoikoak egin ebanez gizarteko, beste gizonen artean bizitzeko. Ori dala ta sortu jakuz gaur ikusten doguzan erririk aundienak. Naita jatorriz, gizon guztiak bardiñak, urtiak joan urtiak etorri, era askotako gizonak ezagutzen doguz: kolorez, aurpegiz, buruko tankeran. Itxurari begiraturik, ezin daikegu esan txinoak eta Afrikako baltzak bardiñak diranik.

Baiña entzun, gizonok, aurpegiko itxurari jaramonik egin barik be, gizonok urtiekin eskualdeko giro, lurraren izate, arazo, artu-emonaz, oitura, erlijio ekintza aztu barik, gizarte ezbardiñak sortzen doguz. Gaur egun, esate baterako, naizta laterri batean bizi ta aurpegiko kolorez alde aundirik ez izan, ezin dezake esan iñork, Andaluziakoak eta gu erri batekoak garienik.

Baiña entzun, gogo-soiñez edo gorputza eta ari-magaz osotutako gizonok gorago dagon beste maitasun lokarri batez lotu gaitu, Jesus buru dogula gorputz miragarri bat egiñaz. Beraz, aurpegiko itxura ta erritasunaren gaiñetik kristau agertu bear gara, edozelako ekintzan, batez be besteak zerikusi dauken artu-emonetan: esate baterako, ez da benetako kristaua gaixo bati bear dan besteko arduragaz erantzuten ez dautsan osagille bat: ez da bere eguneroko lanean edo biarrean gogo gutxiagaz ogiak egiten ditun okiña: ez da bear besteko alegiñez gazteei irakasten ez dautsen irakaslea be: ez da bear dan neurririk artu barik berari dagokiozan gauzak ondo ikasi barik etxeak egiten ditun argiña be.

Oraindik ziurrik gauzak jakin ez arren, irureundik gora dira, koltza-olioa goraberan, il dira-

nak. Ta zenbat eta zenbat jateko, latetan sartu, ar-
dura barik euki ta naita bear besteko egunak igaro,
saltzen dira diru zaletasunagatik?

Ara, zeueik umetxuok, gauza txikietan zintzo
jokatzen ez dabenak nekez jokatuko dau bere egin-
bear nagusietan. Lengo domekan esan gendunez,
milloik eta milloik ume goserik. Benetako kristiñaua
ete da guraso eta andereñoen alegiña ikusi, lekurik
onenak euki ta libururik egokienak eskuan dabeze-
nak, ta urtiak alperkeriz galtzen dituezan umeak?

Oillagorraren eiztaria

Gauza askotan animalia edo abereak erakutsi
ederrak emoten dauskuzala gizonoi ezin daikegu
ukatu. Baiña gaur beste guztien artean bat nai
neuzkizue eredutzat ekarri. Ez ei da gauza politago-
rik, diñue eiztariak, ez dala une zoragarriagorik, oi-
llagorretan dabillen txakurraren joera edo biarra
baiño.

Izan be, eiztariak ez dauka beste zeregiñik; txa-
kurraren ibillera zaindu, aren gelditzea eta aren
makurtzea eta berari une guztietan begiratzea bai-
ño. Bera da gizonak ikusten ez daben tokian oillago-
rra sumatzen dabena, bera da, gizonak ondotik pa-
sa ta, ikusi ez arren, oillagorra non dagon usain ar-
tzen dabena; bera da, azkenez, oillagorraren azta-
rrenak jarraituaz, arrastaka, tatarrez joan da, oilla-
gorraren ondoan etzanda gelditzen dana, gizonari
oillagorra non dagoen erakusteko.

Umetxuok, millaka dira mundu onetan gizonak
egin ezin izan dituzan gauzak; gora naiz beera begi-
ratu, lurrean begiak naiz zerura jaso, ez da tokirik
Jaungoikoaren eskua ikusten ez danik; itsaso ta ze-
ruak, guztiak datoz kantari; narrazti ta piztiak, ma-
muxa ta txoriak, euren bizikera ta oitura zoraga-
rriek gizonari deika dagoz.


Ala ta guzti be, gizonak ez dau ikasi mundua-
ren edertasunean Jaungoikoaren aztarrenak aurki-
tzen; gizonok, arrokeriaz, itsuak garelako. Ume-
txuok, zerurako mailladirik ederrena gizonarentzat
mundua izan da beti. Ala ta guztiz, ezagutu dogu,
edestiak diñozkunez, munduko edertasunaren bi-
tartez barik, eurak egingo eben mailladi zoragarri
baten bidez joango zirela pentsa ebenak be.

Ta ez barrerik egin, geuk be bardin jokutzen do-
guta ta. Zenbat bidar geratzen gara ao zabalik, itsa-
sontzi eder baten aurrean, eta ez doguz aintzat be
artzen itsasoaren zabala, ederra ta sakona! Zenbat
denbora egiten dogu gora begira egazkiñen bat
ikusteko, eta ez gara gauza minutu baten izarratu
ederrari begiratzeko! Ez dakigu zer egin margolari
edo pintore baten marrazkiak aipatzeko, ta lorerik
ederrenak be ez deusku ezer esaten! Ez dogulako
alegiñik egiten Jaungoikoak zeru-lurrak egitean
munduan laga zitun aztarrenak billatzen. Zer era-
kutsia emoten deuskun orretan oillagorretan dabi-
llen txakurrak!

Ogiaren izatea

Jaungoikoak ondo ezagutzen gaitu eta arduraz
zaintzen. Jaungoikoak ondo ezagutzen gaitula eta
arduraz zaintzen, lengo domekan ikusi genduan;
baiña naiko ote da Jaunak egin dabena ikustea? In-
gurun ikusten doguna Jaunagana igotzeko mailladi
bat dala jakitea ondo da, baiña ez ete dogu apurtxo
bat geiago egin bear? Erbia artzeko naiko ete dira
arek lurrean lagatako oin-azterrenak?

Umetxuok, etxe txiki edo aundi, palazio edo
jauregi, eliz edo katedralak, antxe eukiten dabe egi-
llearn eskua erakusten daben ezaugarriren bat:
margoak, irudiak, estatuak: ta musika soiñu ede-



Saturrarango apaizgaitegian irakasle, 1950ko argazkian.

rrenak be ezagun izaten dabe zeñenak diran. Umetxuok, ori olan dala, hainbeste gauza arrigarri erakusten dauzkun mundu onek: hainbeste margo ta hainbeste eratako irudiak daukazan gure lur onek; hainbeste txori kanta, hainbeste soñu eder, hainbeste izaki berdingabeak agertzen dauzkuzan ludi onek be, ez ete dau bere egillearen ezaugarririk?

Bai, umetxuok, ezaugarri barik bera agertzen jaku alderdi guztietan, eta ez eidazue galdetu nun dagon. Zergatik? Alderdi guztietan dagoalako: zeru ta lurrian, mendi ta itsasoan, zelai eta basoetan, zugar, nigan ta lagun urkoagan, beartsu ta aberatsetan, lore usain goxoetan, txori egalari ta kantarietan, arrano ta txepetxetan, mutxarri ta bramunetan, edonun dago Jaungoikoa bere aunditasuna ta maitasuna azalduz.

Ala ta guzti be, ori ez da naikoa; geuk jakin bear dogu billatzen. Zelan? Ara, esate baterako, eta ez barrik egin, zenbat bidar artu dozue ogia eskuetan ahora eroateko? Milla bidar? Zenbat bidar galdetu dozue ogia zer dan? Berbetan asi ezkerro, ogiak zenbat gauza ez leuzkigu esango?

Iñoiz entzun dauztazue eta gitxi gorabera auxentzungo genduke: zortzi illabete daukadaz gitxi gorabera: semendian sartu nindun baserritar batek: eta ama lurrak emon eustan indarragaz illabeterako atera neban kanpora nere burua, bedar itxura artuaz; neguko otzak, euri zaparradak, edur eta txingorak indartu ninduen ta epailleko aizeetan dantzian be ikasi neban, alborakada ederrak egiñaz; andik illabetera banintzan metro bat luze, ta lenengo eguzkiaren berotasunagaz, kozkor batzuk urten eusten nere buruan; ulez jantzita laster, maiatzeko eguzkiak bere kolorez margotu nindun; urre kolorez jantzi nintzan, baiña nere arrotasunak egun gitxi iraun eban; semendian, soloan, sartu nindun baserritar berberak ebagi nindun igitaiaz, burua batera

eta lastoa bestera banatuaz; zaku baten sartu ninduen nere lagunekin batera eta ibilli-ibilli egin da gero auts biurtuta beste zaku zuri batera bialdu ninduen. Nora?

Nora uste dozueu eroan ninduela azkenengoz? Su-labara. Andik ogi biurtuta urten eban zeuen aotan sartzeko. Zugatz eta larrak, aran eta ibarrak, benetan doguz Jauna ikusteko espillu garbia. Baina, ogia baino espillu gardenagorik Jaunaren altasuna ezagutzeko!

Kantua

Umeak: Aita! Nun dago Jainkoa, nun?

Abadeak: Semetxo! Jainkoa edonun.

Umeak: Al neiteke begiz ikusi?

Abadeak: Baiña bai siñismenez bizi.

Abadeak: Siñismenez bizitzeko ez dogu mirari biarrik. Gogo oneko gizon batentzat Jaungoikoaren eskua edonun agetzen da. Zugatz eta larrak, aran eta ibarrak, zeruko izarrak, itsaso-ibaiak, mendi ta zelaiak, txori kanta alaiak, zer dira?

Umeak: Jaungoikoa ikusteko ispillu garbi bat.

Abadeak: ta orain biotzean daukazuen Jaun ori, nor da?

Umeak: Jaungoikoa berbera.

Umeak: Ontxe bai nagola ni pozik. Jainkoa nerekin daukat nik.

Abadeak: Gaur erakuts dautsuet ain zuzen

Umeak: Gure Jainkoa nun dagoen.

Abadeak: Gaur erakuts dautsuet ain zuzen

Umeak: Jainkoa dagola or-emen.



Ai-ta! Nun da-go Jain-ko-a nun?



Se-me - txo! Jain-ko - a e-do - nun



Al nei - te - ke be - giz i-ku - si?



Ba-ña bai si-nis - me-nez bi - zi.



On-txe bai na-go - la ni po - zik



Jain-ko - a ne-re - kin dau-kat nik



Gaur e - ra-kus dau - tsuet ain zu - zen

Abeslariek



gu-re Jain-ko-a nun da-go - en

Abadeak



Gaur e - ra-kus dau - tsuet ain zu - zen

Abeslariek



Jain-ko - a da-go - la or e - men.

Sorgin kontuak



Urtekoen biltzarra Gasteizen 1945 urtean.

Kuban sorgiñak

ETXEKO meñajan zan. Aitte ta beste mariñelak etxeratuta gero, jun zan atzekun semi txalopi garbitzera. Bere zereiñak einde gero, ontzitik urtetera ixule, iru lau andra ikusi zitun molla gañin meñajan sartu naxan.

Euretatiko bat bere ama zala eretxi jakon eta txopa azpixon ezkuta zan aretxeik zer eiteben ikusteko. Gaba ei zanin danak sartu zin txalopan eta tosta gañetan jarri ta erremuk artu ta euretatiko baten esan exeban:

-Una palada y cien millas paalante.

-Bai -erantzun eutzen bestik-; olatu gañetik eta odeien azpitik.

Kuba alla ta beste andrak beste toki batera jun zin bitartin, mutillak urten txalopatik eta Kubako kañabera zati bat artu ban. Urrengo egunin errira etorrita beste barik kontatzen aitai berak ikusitaku, bañe aitak ez eutsan siñistu.

Orratiok semik Habanako kañaberi erakutsi tzanin dudan geatu zan. Gero semik esatzen: aitte, gañea entzutzet esaten txalopa au ondore botako dabela olatu biurtute. Umiai ez-entzun eitzan arren, aitak bada ezpadan be iru-lau arpoi prepara zitun. Urten da laster.

Oraíndik erritik urrin eguazela ta itxasu bare, asi zan txalopi txurlaka. Lenengutan ez arren, olatu geitzen ixule ikusirik eta mariñelak billurtute, esan eban atzekuk:

–Artu arpoik eta bota itxasora.

Lenengo arpoik ura ikutu einde barik ubera guzti odolez gorritu zan eta erabatea itxasu baretu. Au ikusite billurtute etxea etorri zin. Aite etxin sartu zanin ama oian eguan azkenak ematen arpoi dindiliske ebalá.

(48 urteko Rafael Burgok kontatua, 1944an).

Gixona ondu

Andra-gixon batzuk etzin ondo konpontzen, gixonak gogortxu artzen ebalako. Alako baten, gixonak exekixela andrik kutun bat ipiñitzan jaka barrun. Egun baten, zaldupen zir ixule, gixonak sorgin kanta bat letxeik entzun exeban alkarri esaten:

–Lamiña goikoa zer dozu bekoa? Ein ete leikixo gixon orrei lakixo? Bai ezpaleuke emazte onak ipiñitako boskotxako trapixo.

Oneik gauzok entzunde gixona etxin sartu zanian esan ei dotzan andriai, zer ipiñistazu andri jakan? Andrik, nai te lenengotan billurrez egon, gero gixonak esan eutsanin zer gerta jakon, erakutsitzan zein tokitan eukan kutun ori ta andik aurrera gixona ondu ein eizan.

(Mari Tobarí bere lobak artua, 1961ean).

Katu baltza

Berritu inguruko baserri baten, danak oire jun de gero, etxeko andri gorutan gelditzen zan. Alako baten, amabixak ingurun, leiotik sartu ta katu baltz bat urreratu jakon. Denpora bat einde gero salto baten urten eban kanpora.

Biaramonin be bardin; blast leiotik eta bere on-

dora. Iru-lau egunin gerta zan lez, andrik bere kolkorako esan exeban:

-Auxe katu au ezta parte oneku.

Goxin, ixetako astirik barik, gixonana jun ta esan eutsan zer gertaten zan. Gixonak, nai te lenengutan siñistu ez, andri ain estu ikusite, erabagi bat artuban: gaba etorten zanin bera geldituko zala andrin ordez.

Esanta egin, bera gelditu zan gau artan. Amabixakin batera, zapa katua leiotik, ta bere oñetan geldirik, berari begira jarri jakon. Andik laster nun asten jakon katu ori bere ingurun saltoka. Emen ezta gauza onik esanta, makilla lodi bat artu ta jarri zan barriro bere eginkizunetan.

Alako baten, bere onduan jarri rik diñotso katu:

-Zer, gixona ta gorutan?

Au entzun ebanekoxe gixonak alun eukan makilli artu ta bizkar azurrin kankauaz diñotso:

-Ta zeu katua ta berbetan?

Alanda guztiz be, katu orrek iges egin eban leiotik. Egun sentixa, aingeru barri onak erreza ta laster txakur zaunkada bat entzun eban ate ondun. Atea urten ta berak "eup" esanaz batera, "egunon" erantzun eutsan auzoko baserriko morroik:

-Albiste bat dakat, gure nausixak bertara juteko diño, gauza bat esan bitzuleta.

Jun zan ta etxin sartu ordukoxe ikusiban gauza onik ez euala. Etxeko guztik euazen negarrez. Oian etzinde egoan gixonak bera ikusite diñotso:

-Parke eske na.

-Zer egin daustazu parkatzeko ba?

Erantzun eutsan gaxoak:

-Bai, neu naz katu biurtu ta zure andriangana juten nitzana

Parkamena emonaz batera il zan gure katu bal-tza.

Señeru

Ondarrun oituri zan lez jun eizan elixopea se-ñeru bat dexe jotea. Aurrerako egunetan letxeik as-to bat gerta ei jakon bertan. Alako baten, bururatu ei jakon aretxen gañin jarri bihar ebalá. Pentsa ta egin, goiz baten dexe jota gero igo zan asto gañea ibiltzeko ustiaz.

Arre, arre, esanagaitik, ez eban astu orreik zir-kiñik be egiten. Asarratute benetan!, arre, demonios, esan exeban. Esan ba eban esaban. Arre nai bazu arre ixangozu esan da, erriberan bera lenengo ta gero mandasketan zir erun exeban andik eta iru kurutzetaño.


An bean gañera jausi astuoi ta erdi illik egoela señeru orrek, Jesus! esan ei exeban. Au esanaz ba-tera aldendu eizan gure astu oi. Señeruk urrengo egunin errire etorrite osatu biarra ixan eban astuk eindako zaurixak. Ardauzko enplasto bategaz osatu exeban.

Kortxeleko mamua

Leokadi bizitzan neska gangar bat baño etzan. Kortxeleko mamukaitik esaten zana ez eban aintza-kotzat be artzen. Benetan esateko ez eguan orduko Ondarrun iñor abemaitaku jota gero korretan iru buelta emongo ebanik. Alako baten, dantzan einde gero lagunekin etorrela, Leokadik diñotze:

–Neuk baietz emon korretiai iru buelta!

Abemaitaku jota eguan ordurako. Lagunen ba-



Guayaquileko Marianisten ikastetxean, 1953ko Eguberrietako tarta ebakitzen.

tzuk etxera jun zin bañe antxe geatu jakozen iru-lau, ze eiteban ikusteko.

Esan da egin. Asi zan gure Leokadi ori korreta zarrin zier eta ixan be lenengo buelti arin emon eban, ta saltoka ta barrezka. Bigarren buelti emoterakun zarata batzuk entzun zituezen bere lagunak eta Leokadi agertzen etzan lez billurtu ein zin. Bañe orratiok an etorren Leokadi bigarren buelti emonda, bañe ez eukan andrazkun itxuraik be ta lagunai begira be ein baik asi zan irugarrenez korretan bueltan.

Ezkatatu beste barik, kate zarata entzun zan lenengo ta gero negar intzirixak. Ordurarte elixaurrin eguazen lagunak be iges eiben euren etxeta billurtute. Urrengo egunin, Leokadirik etxin etzala agertute, bere ama lagunakana jun zan eta oneik kontatzen zer gerta jakuen. Ama korretara jun ta gora begire asi zanian arri koskor bat jausi jakon bere ondure eta kortxeleko mamuai begiratute, diarez diño:

-Axe da gure Leokadi!

Arrizkio an dago gure Leokadi arri biurtute kortxeleko mamu artin.

(84 urteko Josepantoni Iruetari artua, 1934an).

San Jeronimoko dama

Gabaz Mutrikutik Ondarrure etorren mutil gazte batek alako neskatilla eder batzuk ikusi ei zitun dantzan ebizela San Jeronimoko zelaian. Gogu ein jakolez eurekana urreratu ta naibeste dantza ein exeban.

Dantzan egarritu ta ure eskatu ebanin euretatioko neska eder bat etorri jakon zidarrezko kopa baten ure ekarrela. Ain gauza ederra ikusita zoratute letxeik esan eieban:

~Jesus!, au gauza ederra!

Auxe esan da beste baik aldendu ei jakozen ingurun eguazan guztiak. Inor ezaban lez ikusten billurtute etxera etorri ei zan.

(Elisabet Aranbarririk esana, 1952an).

Errenteriko txarrixak

Gabon gaba zan. Neure osaba Manuel Txikixanin kafi artute, ordubata ingurun jun nitzan etxea. Etxin sartute beste baik, marik ondo euazala-ta, ia angulata jungo giñan aitak esastanian, baietz erantzun neutsan. Arraueta jun giñan eta aitak basatzen kalaban bitartin, ni Simonen kala-tokixan gelditu nintzan.

Andik laster, etzin bost miñutoik pasako, aitak esastan:

-Zer, ixte bada edo?

-Emen ezta ixtebe -erantzun neutsan.

-Ordun, etorri onaxe -esastan-, emen anguli ederto dator da.

Agindute letxeik berta jun nitzan. Aitte eguan tokixan mari txikixe eguan, ur gitxi ta ur eskiñan bertan basatzen, bulto aundi bat, txarrixak lakoxe animala bat edo urreratu jakon aitai. Arpeirik entzan ikusi, bañe palanki atata erdire urteban billurtute, gero esastanez. Ni piskaten bertan gelditu nintzan, bañe eneban ixtebe ikusi.

Gero jun giñan Alli baserrire. Aitte artapin geatu zan ta ni Alli aurrin. Goxaldea, arbiz beteta eguan solo eskiñan bertan alako zarrapastada aundi bat entzun neban. Enetzan jamonik be ein, bañe biarrenin entzun nebanin, farola artute jun nintzan. Eneban ixtebe ikusi. Barriro be entzun nebanin, "Ze

demontres dabil emen” esan ta farola artute solure igo neban. Eneban ixebe ikusi.

Aitak igarristan zeozer nebillela ta esatan:

-Zer dabizu or?

-Zer dabiten? -erantzun netzan, erdi billurtute-. Zarata aundi bat entzuten dot neure inguru ta eztot ixekusten.

-Basarritarren bat izango da -erantzustan.

BaÑe neu enuan orretan bera bez.

-Solta palanki ta etorri negana” esastan ta esanda letxeik bera jun nitzan. Aingeru barri onak errezata etxea etorri giñan.

Aitte errezelo eguan baÑe neuri ixekesan baik. Eguardi zan, gero janda, karreri ata zanin niri estotala ixekesan agertuban berak, neu ez billurtzearen, baÑe bultu urreratu jakonin esan ei dotzan:

-Edozein baza be, urreratzen baza, palanketa sartukotzut”.

Ortik gerora zabal-zabal ebillen errixan Kobastiai diabruk urtetzela txarri itxuran. Orixe da dana.

(Kobastegiren semeak, 1950ean).

Gertaerak



Andoni Basterretxea mixioetako umez inguratutik.

Txibieru

ZAPARRADA ostean, eguraldiaren arpegi onari erantzunez Saturraran aldera zuzendu giñan geure aspaldiko egitaraua beteteko ustez. Ez jataz gogoratzen goizetik zintzo-zintzo etorri zirenen izenak. Ezin aztu alan be, ene laguntzaille izango zan Solabarrieta Txomin. Gazteak, gazte guztiok gijoa-zen alai ta bizkor itxaso zabalera begira. Nork zabaldu ez bere begiak, Arrigorri atzean lagata, Katei bitarte agertzen dan ikuspegi zoragarriaren aurrean. Ain zuzen, ementxe egoan nik, apaizgai nintzala, lenengo erabili neban bidetxidorra. Bide ori bitarte ainbat gauza gogora ekarrita, jo genduan aurrera.

Andik laster, ez dakit nor zan, larri-larri urrerratu jatan euretariko bat:

-Padre -esanaz-, ahí abajo hay una lancha entre las rocas!

“Bateltxoak kulunkaz itxas bazterrean”... Ez egoan utsik. Ikusiaz batera, inguruan iñor gauza zanik ez egoela ta, auzen berako bide latza artu neban. Urreratuaz batera, gaiñetik oraindik, baten bat egoela ziurtatuz, bizkortu nintzan eta ezertarako astirik barik uretan, aitz tartean, sartu. Bultzakada bategaz aitz tartetik atera nebanerako, an neukan alboan Txomin. Nai ta erraza izan ez, berari eskerrak sartu nintzan ontzian aborretik, Txominek berak estiborretik barruan egoenari eusten eutsan bitartean.

Txomin atzeko karelean eta ni abor-estibor erramutan jarrita, alan edo olan jo genduan ondartzatza musturretik aurrera. Bainan ingurua ikusmiñez josirik eta zumardian egoean jendetzagaz ez nintzan ausartu bertara urreratzen eta batel baten egoazan gazte biri deitu eta utzi genduan euren eskutan gure bateltxoak. Aparteko gaixorik, ez zauririk ez eukanez, iñori ezer argitu bearrik ez geunkala ta, dsanga egin eta aldendu giñan Txomin da biok igerian, geure soñekoak utzi genduzan aitzetara.

Gerora, egunak egun, etzan utsa izan egin neban alegiñaren ordaiña: urrengo egunetik asi eta illabetera oraindik, txibi ederrik izan neban janari, aren arrebak esker onez bialduta. Bera ostera, Saturranera nijoala ikusten nindun bakoitzean, alden-du egiten jatan: Lotsatuta?

Naranja saltzaillea

Umi! Umi! Orra hor, umeren bat erre kara jausten zaneko, batez be Nasa kaleko leioetatik zabal-tzen zan dei larria. Dei oni buruz badago bai siñistu nai dabenentzat jazoera bat. 1948ko uztailla, oiturari jarraituz antxe egoan, Zubi-zarraren alboan, ondo ezaguna zan naranja saltzaillea. Urtetan aurrera, etzan berbatsu, baiña urreratzen jakozene-kin, baeukan bai era orretakoek berez dauken gatzatza.


Nai ta udako arratsaldea izan, egunak emoten etorten ziran eibartarren batzuk izan ezik, etzan errez ikusten ondarrutar sasoiko gizonik. Batzuk, erbestetik atunetan eta mutil koxkor eta zarragoak sardina, txitxarrota Sagastunen, egunsenti ta arratsaldez, ordu orretan umeak besterik etziran inguratzen. Jolasean geienak eta besteak kañaberaz lasunetan, an egoazen poz-pozik Zubi-zarraren az-

pian. Jolasak jolas, arin-arinka ebillela, naranja azalean laban eginda jausi da bat bere bultzadaz erre kara jaurtiaz kañabera ta guzti lasunetan egoan bat.

Umien txilioak ta garrasiak esnatu dabez inguru koak. Umil Lenengo, urrenak ta alboko leioetatik gero, zabaldu da Ondarruko SOS. Umeren bat uretara jausi da. Urrean bertan ez dago gizon bat bes terik: gorputzez lodi eta urteak gaiñez (68 urte). Ala ta be! Leioetatik lepora jaurti jakozan euskera-erde razko esan-alak astindu dabe gizajoa eta umea leorretik urrean egoela ikusita sartu da uretara. Umea eskuratu dau, baiña erre karen indarrak zabaldu dau leorretik.

Eskerrak aren estuasunera barrero jaso diran deiadarrak. Tingloipean bertan baina barru aldera, oiturari jarraituz, iru-lau sare konpontzaille dira, arratsaldekoagaz batera, egunero euren abesti xamurrakaz “Zeruak eta lur rak”, “Maite bat maitatzen dot”, “Aita ta ama bizkaian dagoz” inguruak alaitzen dabezenak. Baina umi!, Ondarruko SOS larriak mindu dautsez oraingoan euren belarriak be eta eurretatiko birek, mokolo ta sare orratzak gora jaurti ta badoaz, itsu-mustuan, zoro gisan. Bertara joaz beste barik, dsanga egin dabe biak batera. Nasakale ta aurreko leioak, guztiak dagoz gaiñezka; zer esan, Zubi-zar inguruan dagoan ikuspegia: sare konpontzailleak dsanga egin dabenetik, naranja saltzaillarenga urreratu diran arte: umeak eurak be ixildu egin dira.

Alaxe zan, izan be, giroa. Baiña gero, nor gelditu alan edo olan bere poza azaldu barik, kai gaiñean agertu ziranean? Neskaxoen negar-muzingak, gaztetxoen gora-goraka, nagusien algara ta txaloak, ez zan gutxirako be. Tamalez, argazkirik eza: neska tilla biren erdian ost-ostean zutunik naranjeroa umetxoa eskutan ebal.



Lehen Jaunartzeko umeekin bat eginik.

Burtseñako gaztea

1950eko uztailak 18. Ba ete da inor, egun orretan, zer jai ospatzen zan ez dakienik? Berarizko jai eguna! Jaia, ta goizetik arpegi ona agertu daben eguraldi zoragarria, nork emon ez erantzun bera. Bai, Saturraranera begiratuaz esate baterako, ondarrrik be ez da ikusten. Euki be Saturraranek, danentzako dauka berak zer eskeiñi udaran, batez be edonora joan da be, bertako ezaugarri diran Gipuzkoa ta Bizkaiko mugak besarkadaz batzen ditun eskilantzarri aitz zoragarriak.

Ementxe zan, ta, ez daukat aztuteko ez, egun orretako gertakizun bat. Amarrak ingurura agertu dira oiturari jarraituz Ondarruko apaizgaiak. Izan be, nun emon daikez hobeto bazkal aurretiko iru-lau orduak? Ikusiaz batera gogoratu jatan, aspaldi eurentzako neukan biartxo bat. Gauzak ezin leikezan egokiago jazo. Aitatu ta beste barik, esan bearrrik ez eben izan; otsian atera eusten arrantzale batzarreko nagusiak emon da edozer estutasunerako ondartzan bear-bearrezko izan zitekean soka naastua. Nik sukaldeko sartu-urtena egin aurretik an euken eurak biribillean tolestatuta eun da berrogeitamar neurki inguruko soka. Urak azalean barebare, baiña igarirako, batez be alabearrez dabilzantzat kontu izateko: barruko olatua.

Amabiak, ez da oraindik agertu errietatik kristiñau ikasbideko umiekin urreratzen zan abaderik. Amabiterdietan orratxio, gazte zoro itxuraz beteriko berebil aundi bat agertu jaku. Naita gogoz egon, ezin izan neban etxera sartu. Ain zuzen, euren zuzendari etorrena nere kideko Jose Maria Zamora zan. Bera niregana orduko, itsu-itsu iges egin eutsen gazte mordo batek.

–Jose Mari, kontu eukizu! Ze, naita arpegi ona erakutsi itsasoak, gaur ezin leikez edonun sartu ta edozelan ibilli.

Ori esan ta, beste barik, jateko zain neukan Zeferino erretore jaunarengana jo neban. Bide batez, zirikal-di-zirikaldi, sukaldean Josu lagunarentzako gertu egozan txorixo zati batzuk artu ta aurrera egin eban.

Baiña zer dala ta gelditu nintzan atean barruratu barik? Nork eroan ninduan, Zeferino jauna ao zabalik lagata, igarian egozeneri, zugatz azpian, begirari zan nere lagunagana? Estu ta larri egoan. Zergatik? Bai, ikusi nebaneko, a mutilla ez dabil ondo, esan da, sartu nintzan barrura; artu goizean gertutako soka mordoa ta zuzendu nintzan, hobeto nundik egitekoa zan begiratur.

Ez nintzan bakarrik; olako jazoera baten beti agertzen dira aingeru jagoleak be; antxe neukazan gaiñean, aitzetan, Lazpita nere laguna eta beste bi. Soka mordo biribil tolestaturakoa euren eskutan jarri ta millaka lekuko aurrez ondartzan, guztiak kezkatan ta gaztea urak zabalera eroiela oartuaz, dsanga egin neban eta urreratu nintzan eun bat neurkiñera egoan gaztearengana. Ez zan ezertarako gauza, txikota luzatu ta jaramonik egin ez eustanian. Nork kendu gero ari eskuko lokarria? Besoagaz egin neutsen keiñua bitarte, an eruan ginduzen tengaraka biok aitzetan gertu eguazanak.

Burtseñakoa zan gaztea; osagilleak eta olako goraberetan agertzen diran sasi-medikuak eurenak egin da, bereganatu eban Jose Marik. Ni ostera neuk uste neban besteko ez. Errekaxoan utzi neban Josu lagunari azpitik egindako txoritxo zatiak. Apur bat jan ta edanaz oeratu nintzan nagusien aginduz. Gogortu nintzan orratxio, hainbeste urtetan apaizgai lenengo Saturarranen ta irakasle beragaz gerta nintzan Zeferino jaunagaz afaltzeko.

Ez dakit noiz, baina bai nun. Ustegabeko don Jose Maria Baenaren illetan zan. Bazkalondoan, sakristian abade bat urreratu jatan, ia ezagutzen neban galdezka.

-Iñondik iñora ez -erantzunda, besoa luzatu eta besarkada bat emonaz:

-Ba... neu naz, zuk Saturrarango ondartzan il zorian nengoala atara ninduzuna.

Faustino Akarregi

Uztaillak 29. Goizean Arta azpian igeri egin da, arratsaldez mendira joatea gura neban arren, Kanttoipeko geure ontziko ikasgelan sartu nintzan, amaren esanera. Ondarrun, naita askorentzat, ondartzatza aundia galerazota egon, ala be, edonun egon igeri egiteko aukera. Baina nun ikasi igeri egiten? Edonun! Bai, edonun esanda, an ikusi doguz gurasoak, ama geienetan, lau-bost urteko umeak eskuan dabezela, gerritik kortxoa jarri ta, beste barrik, erre kara jaurten. Ta zein ume geldirik egon bere laguntxo guztiak aurrez-aurre igerian ikusita?

An daukazue bat: Faustino. Dardaraz dago, baiña naita bildurrez, pixka-pixkaka sartzen doa errekan, ta alako baten, oiñak uts egin edo zulo baten sartu ta, apur-apurka badaroa erre karen indarrak kalan erdira. Bildurtu dira laguntxoak ta euren txillixoekin bizkortu dituez alboetakoak:

-Umi, umi!. Zer dala-ta hainbeste zarata, sasoi-ko gizon bi aurrian eukita?

Gure ama arrikatza tolestuten gela barruan, Miren arreba ta biok emon-ala. Kanpoan gizonak ikusita be, urten eban Mirenek geldirik ezin egonda. Otsean sartu da diarrez:

-Andoni! Andoni! Urtexu, orreik ez dakixe igarixan da!

Bai, egia da. An dagoz ezagun-ezagunak diran mandazain bi, sasoikoak eurak: Pasio eta Masimo. Baina eurak ez dira gauza. Orra zerk beartu nin-

duan, urten da beste barik, dsanga egin ta Faustino, laguntxoak begira, eldu gerritik eta leorreratze-ra.

Oraindik bizirik, esker oneko asko ezagutu ditut baiña bera lakorik ez; gaur be, gomutaren indarrez, ikusten nabean guztitan urreratu ta agurtzen nau.

Bergarako txoferra

Uztaillak 19: Ondarrun meza emon da, nere txokora netorrela, ez nintzan izan gauza zumardian hainbeste jakingureri bihar besteko argitasunik emoteko. Ala be, nekez baiña alkartu nintzan Zeferino jaunagaz. Ez neban izan erantzun egokirik bere itaunentzat: zer dala ta urten atzo kanpora ate sarreran agertu ta gero? Bene-benetan, gaur oraindik ez dakit zerk aldendu ninduan une aretan bere ondotik. Dana dala, ezin ukatu oso egokia izan zala artu neban erabagia.

Eguraldiaren egoera ez genduan izan goizetik, iru-lau igarilari ta pelotazale baiño. Auei eskutan pelota bat utzita, kaiñabera bat artu ta aitzetara jo neban txistotan egiteko gogoagaz. Ez neban izan arrantzan egiteko pozik, Saturraran zaarreko atarian. Zazpi ondartzetarako bidean bertan, piku azpian egoan, antxiña Ondarrurako joera izan ta gerra ostean Saturraran zaarrean egunak igaroten agertzen zana. Nor geratu ez ain atsegiña zan gazteiztar idazle on eta kontu-esale gozo bategaz! Ta nork esan, gerora, errena zalarik bera bitarteko izango zala aurreko eguneko larritasun bardiñaren ondorio!

Naita eguraldia asarre, agertu ziran bai eguerdi aldera, banakak lenengo ta gero eguneroko iru-lau sendi ezagunak, euren umeak lagun. Baiña benetan

ardura artzeko aiña zan, berebil aundi batetik urten ta, beste barik, ume talde aundi bat itsasertzeratu zanean, euren txoferra aurretik ebala. Umeak olatu aparretan poz-pozik gelditu ziran bitartean, txoferrak ain zuzen, bare-bare egoala oartuaz, gureztat betiko burauste izan dan aitzen sakonera jo eban. Eranzten asi zaneko, beste kezkarik ez neban barruan, nere baitan, "nere bostean", esanaz: "txo, igarian badakizu leku obarik ez dozu billatuko"; baiña, nun egoan ta ze burutasun ebillen igarririk, edozertarako gertu nintzan. Izan be, Ezkillantzarri orretan errexullaxak sortzen ditu ondar sakonak. Orra or, igarian jakin ez da, or sartu diren gure iru ezagunen illerria. Ta ittoak aparte, zenbat estutasun ta gorabera ez ditu ekarri.

Jaunari eskerrak, askotan ez dogu jakiten nundik nora etorri leikegun bear dogun laguntza; iñongo laguntasunik ez begien aurrean eta, nori eskerrek atera nebala uste dozue gure txoferra egoera larritik? Ba, nere lagun errenari esker. Esku artean zeukan makuluari esker. Kendu eskutik ta sartu nintzan uretan, ta makulua luzatuz atera neban gure txoferra.

Txisto arrantza

Saturraranen egon diren abadeetatik aitzak aiatatu ta nori ez jako burura etorriko Ezkillantzarri, Bizkai-Gipuzkoa mugan egoan arriari eskerrak. Kategiko lerroak oartzen eban lez, aitz nagusiaren gailurrean bertan agertzen zan Bizkai-Gipuzkoako itsas muga. Baina aitzak aintzat artuta ez dira errez aztuteko, ordu erdi goraberako ibilera ziran Saturrandik Mutrikura bitartekoak be.

Naita bein baiño geiagotan aruntz-onuntza ibili, aitz oneik ziran, ezpai barik, orduak pozik emonaz

kaiñabera-arrantza egiteko aukeratuenak. Zein abade ez da gogoratuko, leku orretan "arrantza egunez" artutako txisto, karraspio ta durduakaz? Saturrango udara gogoratuta, nork aztu "arrantza egunez" gaiñera orduko egitaraua: abesti, ostikoketa ta esku-pilota norgeiagoka?

Gerra ostean or egiten genduzan ibillera askoren artean, gogoratzeko gertakizun bat be badago. Oiturari jarraituz, goiza arrantzan emoteko asmoz, bearrezkoenak ziran arrak batzera urten eben aurretik amar lagunek, Ondarruko erreka bazterretara. Amarrak, gutxi gorabera, an egozan Saturarran zaarreko atarian euren kaiñaberakaz. Itxaropena izan da beti edozein arrantzaleren eragille. Nork siñistu ez, oneik eroien alkarrizketa entzunik, Idurreko xingirak legortuko ez ziranik?

Arrantzaleak naiko ez zirala, sarri eukiko ez eben aukera bat zala ta, beste ogei bat lagun alkar-tu jakuezan, xingiretan igeri egiteko gogoakaz. Ez dakit nor zan abeslari, baiña giro aretan aingeru baten gisan erantzun geuntzala guztiok, ezin ukatu. Izan be, noiz ta nun obeto abestu geure-geurea zan "bateltxoak kulunkan itsas urdiñean, gaba igaro ondoren, alperrik lanean"?

Abestia amaitu orduko zabaldu ziran, bakoitzak egokien eritxon kala artuaz. Ze ikusgarri politagorik bakoitzak arrapatutakoa ikustea baiño?: "Altarakoak amabi", "Aristi kalakoak hamabost", "Idurrepekoak hamazortzi"...

Ze laburra egiten dan aurretik jarritako epea edozer arazo pozik egiten dogun bitartean! Ordu biko ekiñaldi zoragarriaren ondoren, txistu soñuagaz batera bukatu genduan gure arrantza. Soñurik entzun ez edo entzungor egin, kosta jakun etxeruntz abiatzea.

Aurrekoak, aurrez doazela, atzekoak ostera geldi xamar, garrasi ta deadar. Arazoren bat? Eurenga-

na urreratzean baieztu neban neure kezka: poltsadun nagusia txirrist egin da xingira batean jausi da. Zer egin? Lagundu berari zulotik urteten ta, gero, ur azpian egozan txistoak jaso. Eskerrak poltsa ez zala autsi: amabi bat artu ta beste amartxo bat uretan lagata, berandu jo genduan etxeruntz, berrogei-tamarrekoagaz, "arrantzaliak goibel" abesten.

Oiartzabalek gogoan izango dabela jazoera ori ta, ez dodaz buruan, arrezkeroko bazkaritara bitarte esan eta entzun genduzanak; lagunen poza ta adarra joteak. Arratsaldekoa ezin ohea. Zeferino erretore jaunak emon euskuzan emaitzak aparte, Idurreko sagardoagaz emon geuntzan azkena arrantzza egunari.

Aingeru jagoleen eguna

1950eko urriak 2, arratsaldeko bostak. Gipuzkoako eta Bizkaiko gotzainen batzarra. Ikastarorako ganora barik oraindik, mutillak aruntz-onuntza dabilnaz erreka ondoan. Kolkoan neukan asmoa aurrera eroateko ezin giro obarik, euretatiko amar batetik, inguratu ta ibillaldi bat egiteko gogoa agertu eustanian. Ederto! Ederto esanaz eta txistua lagun, Burgorako bidea artu ta zuzendu giñan gora, aita-turiko baserrira.

Berreundik gora giñan, seirak amar gutxiago, aurrenak Mateo Osaren etxera urbildu ziranean. Iturritik etxera bitarte, bidetxidorrean bertan, autsitako elektra ari bat batetik bestera. Bideratu nintzanerako ez jatan ondo eretxi ta gitxiago be ez, iru-lau lekeitiarrak erabillen joera. Gogor egiñaz orratxio, jolasean ibillita, oraindik esku artean euken elektrika aria etxe ondoko egur pillaren gaiñean utzi ta besteen atzetik gorakoa artu eben (seirak eta lau miñutu).

Nik ostera, seirak eta bost nere eskuturreko ordulariak, iturrira bertara joaz batera, ustebako txinpartak nere buru gainean neukan arkaziaren adarretan. Ezelako arriskurik gogoratu barik, baiña ez egoela egoera onik eretxiaz, gaur Markiñako txanburu dan Jose Maria Ituarte bialdu neban bere aita argizalearengana, zer jazoten zan esateko. Bitartean, Akillako bidegurutzean apur bat berandu eretxita, Burgora barik, beruntz Arrigorrrira artu genduan. Bide zabalera eldu ta bertan Saturrarango jun-etorrera egunerokoa eben iru-lau gizon ezagunak emon euskuen lenengo albiste garratza:

–Ederra jazo jakue zure lagun don Anton eta don Jose Mariri.

Gero gerokoak, gu guztiok gora igon ta beste barik, txinpartak ez ezik, sua artu eban etxe ondoko egur pillak. Su ori ikusita, iru-lau andrazko asi dira diadarrez:

–Sua! Sua!

Inguruan ez dago erantzuna emoteko beste sa-soiko gizonik, don Jose Maria ta don Anton baiña. Bestetik, andrazko batek: “apaizgaiek emon dautse sua!” Ori entzun da zelan gelditu ezer egin barik.

Gogo ona askotan norberaren kalterako dala esan ebanak, ez eban guzur aundirik esan. An joan dira apaiz biak, ezeren aztarrenik ez ekiela, zer edo zer egiteko asmotan. Baiña zer asmo eben? Dana dala, Mateo Osaren etxeko kanpoko malladian igo ta ikutu besterik ez teillatu eskiñako erretenari ta segundu baten bide zabalean ikusi ebazan euren buruak, geiagoko barik. Ta zer dala ta, txinparta ta sua?

Dakigunez, urte areitan, seiretan emoten eben argindarra. Baiña egun artan oitura ebenez, iru elektrikariak seiretako bere egin bearra egiterakoan, ao zabalik ikusi dabe indar biziko (*alto voltaje*) arien



Lehen Jaunartzeko umekin Ondarrun, 1972an.

giltza jausita. Zer dala ta? Zeiñek jakin? Bai, alkarri begira geratu dira, guk bialdutako albistariari esker kontuan jausi diralako ze arazo euken esku artean. Nork esan? Nork jakin? Itxu egozanen artean, iñork ezebez. Baiña an bidean autsita egoan elektrika aria, indar biziko aria zala jakitean, an seirak eta lau miñutu arte ari ori eskuetan erabilli eben lau lekeitiarrak, zer? Siñistu bere ez, siñistu bere ez olakorik!!! Baiña artaz zerikusi ebenak bai! Iru elektrikiariak, alkarri begira, mutu! Erretore jauna eta irakasleak arrituta! Ari-giltza konpontzen eben bitartean euren alkarrizketan emondako bost miñutuei esker ez ziren sikatu lau lekeitiarrak.

Ta zer egin? Egin ebena baiño hobeto, zer? Elizan sartu ta *Te Deum* esker abesti zoragarriagaz emon geuntzan amaiera arazoari. Orain bakoitzak emon lei bere eretxia. Zer egun zan? Urriak bi, Aingeru Jagoleen jaia.

Ibargungo txarrixa

Amaikatxo ames gozo egin dabe Ondarruko umetxuok Asterrikako san Lorentzo dala-ta

Ixan be toki aukeratua egun ederretan jai egiñaz ordu batzuk bertan emoteko. Egon be leku onian dago; Ondarrutik Bilborako bide zabaletik goruntz, ordu erdi. Beste ainbeste itxas ertzetik ziar Lekeitiora garoazan bide zabaletik zear. Etxano deiturako mendia ren babesean. Ondarribitik asi ta Matzaku bitarteko kolkua agirian dabela. Zortzi etxe baseliz (ermi-ta) inguruan; ostontzeko amabiak goi eta bei basuan sakabanatuta. Mendi, baso, burdin-bide ta txidor, zugatz, lora, sagar, madari, kerixa, ta malluki ugari-duna zan Asterrikako leku eder ta gozoa.

Ala ta guztiz be aspertu giñan, benetan aspertu be, Asterrikaren ederragaz. Zortzi illabete, etxetik ia

bertan, barriro gurasuekaz noiz alkartuko giñan ez genkiela. Zortzi illabete, batzutan ogi naiko janarren, bestetan, askotan, aora zer eruan ez geunkala, gaztetan nai aiña erroska jaten gendun gure Asterrikan! Zortzi illabete, Zagustani begira makallu jaten, gure bolintzeko sardin erriak gogoratuaz; zortzi illabete Alkoleako kañoi ta Santa Kutzeko ametralladoreen jaurtieretako dunbadekaz gortuta, beti baketsu ta ixil ezagutu gendun Etxanon; zortzi illabete guda tresnez josita, egazkiñen bat noiz beratzeko zain, pago-uso zalien eskopetak baiño beste zaratarik entzuten ez zan konde-Etxebarrin.

Ez gendun, orraitio, esateko egun garratzik eza-gutu. Eguraldiak be izan leikezanik ederrenak. Errekaixe epeletan emon genduzan ia egunik geienak. Eskerrak orreri. Mendiak edurrez zurituta ego-tea, naiz ta birika onak euki; ipar-baltza arpegitik gendula bide aretan aruntz-onuntza ibiltia ez zan giro izango. Bildur izan genduan arren, egunekin batera baeioan negua. Guk uste baiño lenago jausi jakun udabarria! Eta udabarria zer dan jakin nai dabenak, datozela Asterrikara!

Gudan egonagaitik egun ederrik be ezagutu genduan. Ederrenetarikuena, danetan, san Anton eguna. San Anton besigu zarrak al monton. Izerdi ugari ta bildur ederra igarota gero.

Ez dakit nor izan zan. Gabonetatik laster behintzat. Zurrumurru ebillan baten batek bazkari lege bat egiteko asmoak eukazala. Dana dala ogeiren bat giñan batzarrean. Gau ostea zan. Laurak inguru. Iñok ez eban gauza garbirik agertu... Ixillik jokatatu zan. Erabagi bat artu zana bai. Ibarguenera joateko agintzen dabe.

Goian gelditu zirenak be urdailla beteteko asmoz edo, iñoiz baiño zoliago ebiltzan, Gorozika aldeko Ubilla onduan eguazan erreketien ibillerak zainduaz. Ibarguenera zer eguan danok genkian. Iru-lau

oillogaitik ez genduen narrarik be egingo, baiña ez zan edozelan be jateko makala, aurreko egunian Joxe Bizardok ikusi ebana: amar arru bada gitxienez, ziarduan.

Garro bitartean dana ondo, bide txarra egona-gaitik. Sasi, txara, bedar-arantza, dana zan ona gure buruak estaltzeko.

Gorozika aurrez-aurre egiten zan lez auzo orretan egozan reketiak ikusiko genduzanen bildur giñan. Garrotik berako bidea agirian egiten zan. Bai estualdi ederrak gure mutillenak bide zabalera jo arte. Eskerrak eguzki begia zala dana. Bestela nor etorri negu erdian gu etorri giñan lez tatarrez mendian bera? Buruko min ederra izan zituezen orraitio guretariko batzuek orduan urratutako prakak ezin josite.

Beian iñoren biarrik ez genduan izan. Bikoteok danok gertu giñan bakoitzari obetoen eritxon tokian. Korta inguruan zortzi... bi baserri atzean.

Barregurarik ezin neban kendu. Geuria zan, izan be gizonen jarkera asturianuen itxurak atara naian. Txapela dotoria dala diñuenak naiago neban neugaz egon balitzaz. Buruan ondo jarrita ez dot ezetzik esaten, baiña bai itsusia be, bekokian begietaraiño sartuta Joxe Bizardok eukan tankeran; zapi gorri bat zamatik dindilizka, paparra zabalik eta be-laun urratua praka zulutik agirian. Nork esan ondarrutarrak giñanik?

Zarata aundirik ez zan. Ala ta guztiz be zer edo zer entzun ebalako leiora urtera egin eban baten batek. Ez genkian etxean nortzuk eta zenbat egozan. Andra zarra zala begitandu jat, esan euskun Antolinek korta atzetik. Txo!, jardun eban... Kortxua jaso ardura barik. Amaika txintxorta jan bear dodaz orren lepotik.

-Ixiltuago, Antolin -ekin eutsan albotik Iña-

kik-, andra zarrak euskeraz entzun barik. Ez aztu "asturianoak" gareanik.

Etxean sartu giñan aurretik izentatutako biok. Bildur ikaraz, barruan nor gerta leikian ez genkiela. Gela ta orma-atze, ganbara ta bukoe-tarterik ez zan geratu aztertu barik. Begiak zoli, belarriak erne ta badaezpadan be eskuetan su-izkillua. Ez eguan amuma zarra besterik. Sutako burdiña eskuetan ekarrela urten euskun nortzuk giñan itaunduten.

-Ez ikaratu, euskalduna naz. Arrastion amuma...

-Ez ikaratu? Ikaratuko ez naz ba orrein arpegiak ikusita?

-Ez zakidaz bildurtu -jardun neutsan-. Asturianuak dozuz... Aspaldian ezer artu barik dagozalako jateko billa datozenak.

-Zer jaki emon al neuskizue ba nik?

-Kortan txarri txikien bat daukazula diño.

Txarria aitatu beste barik sutondoan jezarrita negarrari emon eutsan.

-Txarrikumia diñostazu, txotxo, zortzi arru baiño geiago dan txarri ederra?

Berba eta negarrez ziardun. Ez eban zirkiñik egiten jarrita eguan tokitik... ta estutu giñan... Ez eguan ezertarako astirik. Illuna jausi baiño len egiteko gauza zan.

Eskerrak Gasparri. Nundik nora barik sukaldian sartu zan. Bildurgarri egoan benetan. Ama zarrak dardaraz begiratu eutsan. Begirakun itzal bategaz urreratu jatan esanaz:

-¡Vasco! ¡Teniente dise llaves pronto!

Ama zarrak berba orreik entzun ta ulertzeko aiña ba ekiala uste dot. Ala ta be entzungor eginda... itandu eustan:

-Zer diño?



Emiliano eta Andoni, Lekeitio inguruan.

–Zer diñon? Nik giltzak emoteko.

Erroke be ez egoan kokolo. Nik ez dakit nundik nora ikusi ebazan topiñan atzean isegita egozan giltza batzuk. Zirt-zartadako baten artuta tximista bat lez kortan zan. Aurreneko sartu ziranak arrituta geratu ziran txarriaren lepua ikusirik. Izan be a zan txarria! Janari ederragorik San Anton egunerako!

Uste gendun baiño bildur gitxiago euki edo txarria geiegi maite ebalako, etxetik urtenda kortaratu giñan amuma ta biok. Amuma, batetik, neure uberan egon ezik, bildur zan. Bestetik ez jakun komeni barriketarik, aukeran luzetxu eian arazua ta.

Alde egin neutsan ixil-ixilik. Mendi bazterrean egozanak keixu egozan. Gixonak!, esan eusten asarre... Gorriak garela... gudarik gogorrenetan... iru egunetan zer janik ez... goseak arrakalauta... ta amabi gizon andi txarri bat artzeko atso baten bildurrez.

–Izen be –jarraitu eban Luisek–, onetxek dira estualdiak, andra zar bat dala-ta.

Zenbat eta geiago entzun ainbat eta beruago egoan Agirre gure tenientea. Korta inguruan, kanpuan, ezin egonik ebillan batetik bestera. Atean zutik geratu zan, alako baten.

Ezin eikean obeto jokatu, orduantxe egin eban eran baiño.

Gerritik ipurdira ubeletik zintzilizka eukan su-izkillua edo errebolbera ikutuaz.

–¿*Qué dise la vieja?* –esan eutsen barruan egozanei.

Atsoa, bereala, nigana etorri zan.

–Erdu ona, zu, euskalduna.

–Ez bildurrez amatxo, apatx ementxe –esan neutsan.

Iñundik iñora ez eban nai bide ertzean jarri. Etxera gura eban sartu.

Ixilik jokatzeko alegin egin gendunarren, ezin ukatu baten batek ikusi edo sentidu ginduzala.

Bostak ziran. Egun ostantza. Korta barruan egozanak ekiñaldian ziarduen. Mariñelak ziranik be ezin esan. Dena egoan egoki. Zati batzuk alkarren gaiñean tolestuta lez... burua erdian zati bi eginda zapi baten estalita... urdai azpikuak kakutik zintzilik.

Ordua da onezkero, esan euskun Enrikek egurrezko tramankulu bat eskuan ebalá. Zabaldú egi-zuez ementxe... errezen ementxe izango da-ta.

Ez zan ezelako zaratarik. Gure txarria eskuetan artu ta kanpora giñuazen. Baiña beti zerbait. Asko da ba Antolin ez egotea be! Onezkero txarridunak Garron eguazen. Aretxen begi zorrotzak galdu genduzan.

-Baten bat dator, iñuan. Sartu zaiteze kortan arin. Arin!

Gizon bi ziran, balea lakoxeak biak. Ondo eza-gunak gaiñera. Antxubiako indianua zan bat eta Etxalde baserrian jaiua. Leiotik begira egoan amumak ez eban iñok esan bearrik euki. Laster agertu zan sagutxu baten antzera. Eskerrikasko esanaz, eskutik artuta kortaratu zan.

-Neure txarrixé ostu nai dauste. Ez egiozue olakorik egiten itxi.

Ate ondoan nengoan zer egin ez nekiela.

-¡Vasco! -entzun neutsan esaten barriro be Agirreri-. *¿Qué dise la vieja?* -Oraingo onetan asko be zorrotzago ta dotoreago. Ala ta guztiz be "vasco" berba entzun eta amumak esan eutsanaz bildurtu orde adoretuta, albora etorri jatan indianua esanaz:

-Zu zelan zagoz oneikin euskalduna izanda?

Ez neukan orduntxe barriketako gogorik. Amua ezpaiñean neukan, ezagutuko nindulakoan. Ixilik ni.

–Ara ba –jarraitu eban berak–. Nik ez dakit nundik, baiña zure aurpegia ezagun egiten jat.

Bai, bai, izan leike –erantzun neutsan–. Ni bermiotarra naz ta askotan etorri naz Ondarruara aitagaz saremani, kortxo ta berunak eroatera. Baita Berriatuan be egon naz iñoiz maluta txorta batzuk artzen.

Onek guztiok entzunda, buruak makurturik arri-alperraren gaiñean egozan “asturianoen” artean, ez zan giro. Bururik jaso izan balebe, lautik iru ezagutuko zitun Etxaldek. Bera be ez egoan arro. Adar begiz jositako intxaur ondo baten eguan. Kortan sartu naian jaiki zanean, ez zan ezertarako gauza. Ortarako, egia esan, ez eutsan astirik emon Agirrek. Eskuman errebolbera eukala, ezkerra luzaturik ta Etxalde izendatuaz:

–¡Apunten armas muchachos!

Nik ez nekian Etxalde orkatillatik gaixoa zanik, baiña orduan artu eban abixadia ez zan makala izan!

Indianua, oraindik be, antxe gelditu zan.

Sartu zan Agirre barruan. Bagenkian gauzak egoki egingo zitula. Antzerkietan be alakorik! Zuri-zuri eukan arpegia. Ukabil biak erabilliagaz:

–*Demonios, ¿quién es usted?* –esan eban. Erderaz guk baiño erreztasun gehiago eukan lez, txarri-rik ez eroateko asi jakun esaten.

Ez eutsan, baiña, ezetako astirik emon Agirreri.

–¡*Mecagüen koño!* ¡*Apunten armas, muchachos!*

Nik ez dakit aspertuta egoalako edo gauza bertan bera amaitzearren, bildurra sartu euskun guri be Agirrek. Danak asi ziran armak eskuetan artu ta zirri-zarraka.

Antxe amaitu ziran buruko min guztiak.

Amumari gerritik eutsi ta perdon, perdonka diadarrez sartu zan gure Indianua Ibargunen.

Eskerrak aurretik dana gertuta geunkan. Bestela nor ibilli ordu aretan eta giro aretan betik goruntz Asterrikarte amar arru txarri okelagaz?

Bertsoak



Jesusen jaiotza ospatzen umeekin.

Bertsoen gaia

MILLA bederatzireundik ogeitamasei bitarteko Ondarruko mariñelen egoera. Lan au iru zaitan banatuta dago.

Lenengoan, urteko lau aroetako arrantzaleen bizitza ezbarदिña dakarzku gogora; bakoitzeko arrantza, sendiko bizitza, ta ostontzeko gora-berak.

Bigarrenenez; orduko emakumeen lanak, urte orreitan ezagutu genduzan irakasle, osagille, musikari, umeen jolas ta abar.

Irugarrenenez; zaarrei euren etxeko jai-elizkizunetan, au da, bateo, jaun artze ta urrezko ezteguetan poza emoteko egoki jatorkuen abesti batzuk, San Juan suetako ta Gabonetakoakaz osotuta.

Azkenez, zortziko nagusian aurreko ta bukaerako agurrak.

Berba batzuk ulergaitzak izango diran bildurrez iztegi laguntzaille bat.

Agurra

Negu gogor ta udaberriko,
Atunetako egoera
Guztiok! ona nolakoa zan
Gure asaben joera;
Negu gorrian, sarri lepoan
Elur malutak goi-bera.
Udabarrian, ekaitza franko
Txingorra barriz sobera.
Udaran sarri euzki galdatan
Ezin joan gerizpera.

Lengo oiturak zintzo jarraituz,
Eskatu bear laguntza
Goiko jaunari, nai badot argi
Agertu zarren bizitza,
Ezagutuaz eskertutzeko,
Euren orduko ekintza.
Fede oneko gizon mardulen
Kezka, izerdi ta bitsa.
Euren aurrean txapela kenduz
Obe ixilduko bagintza.

Attitta ta amama

Oraingo onetan aitita zarra
Gura dot artu nere gai
Eun urtekin oraindik ere
Bera dazaugu sendi zai
Billobatxoak izara azpian
Ordu geiago egin nai
Txepetxa antzo zalapartaka
Inguratu da txit alai
San Pedro egunez beti bezela
Gaur be egingo dogu jai.

Amonatxoa, ezkil-torreko
Durundiagaz batera,
Egunsentian elizaratu
Gero ixilik etxera.
Jaungoikoagaz artu emonik
Izan ta goitikan bera,
Orain badoa bere kutunei
Poz aundi bat agertzera:
Kepa Deunaren eguna dogu
Elizaren esanera.

Atun arrantza

TXALUPA aundiekin. Bizitza garratza benetan illabete ta erdi etxetik kanpoz, gaurko itsason-tziak daukezan erreztasun barik: Ez garbitasunera-ko, ez lotarako: ezagutzen ez ebezan errietan, ekaitzetan bildur, portura joateko estu ta larri askotan; eguneroko janari bardiñagaz; marmitako eta atuna erreta illabete osoan. Gaur janari obarik ezagutzen dabe gure arrantzaleek.

Argi eguna eta arratsera illun,
Aurpegiz poza eta barrutikan itun.
Gure izerdi dira antxoba ta atun,
Sendia bitarteko, ogia errudun.

Aita aurretik dala umeak tatarrez, (1)
Seme-alabak dira amaika bat errez,
Senarra itxasora, andrea atsekabez,
Agur eiterakoan, guztiak negarrez.

Txalopa aundia beti nagusi ontzitan.
Ezaguna zan, baita, Jesusen bizitzan,
Ur-ertzetik bestera, jun bear zanetan
Aize-oidal indarrez edo erramutan. (2)

Mende onen aurretik ez eguan besterik
Atun arrantzarako aukerako zanik.
Naita astilleroak gogor lan eginik,
Eskabide tankeran, ez euken astirik.

Gure txalupa oneik asi ziran galtzen,
Lurrun-ontziak gertu zirala agertzen.
Ogei urte gerora zalla zan ikusten,
Jabeak ebelako, Bilborako saltzen.

(1) *Tatarrez*: arrastaka.

(2) *Erramutan*: arraunean.

Atuntzu(1)

Amar-amaika gizon tostatan (2) jarririk,
Aize bagarik belak iseita (3) alperrik.
Obe luke apurtxo balego iparririk,
Ez lukete izango ainbeste izerdirik.

Atunak eldu eta laga arraunari,
Aurrera doaz esker aize-oialari.
Eguerdira al bada amore lanari,
Gogoz ekitekotan marmitakoari.

Atunak laga eta jatekoaren zain,
Ojaelera (4) begik, sarri egin usain,
Matordua (5) elduta lapikoaren gain,
Marmitakorik ete guztiontzako lain.

Ardoa edan bear baiña danok neurriz.
Iñork eskatzen badau edateko berriz,
"Atzekoak"(6) emon lei beraren eritxiz;
Baina sekula ere ez gura aiña aldiz.

Oparo jan-edanta aizea indartu
Aize-oialak dira zearo tximurtu.
"Nausia"(7) laburtuta "trokoa" (8)goratu,
Itsaso zakar ori dogu menderatu.

Ekaitzak laga eta itsasoa bare.
Badijoaz aurrera bildurrikan gabe.
Atunak eltzen badau, ori beti obe,
Erramutan egiñaz erantzungo dabe.

Ikusi ein dogula alegin ainbeste,
Jakiñik dagozala beti atun eske,
Kaiara eldu eta nork esango leuke,
Izerdiaren ordain atuna ain merke?

"Atako bandan"(9) arin, onuntz ariñago.
Itsasoan soldata, lurrean naiago.
Naita sarritan uiñak gogor jo ordago,
Itsaso zale gazteik, zartzan areago.

Egunez nekez eta gabez lo bearra.
Zutik ibilliz gero etsiteko garra.
Garbitasunik ez ta edonun ugarra.
Gazteak egin bear askotan negarra.

Gorputzak berotzeko naiko bela zarra,
Gazteak asko eta agure bakarra,
Onek, txapela arrotuz, beazka kaskarra,
Biar eguerdiz, diño, eguraldi txarra

(1) *Atuntzu*: atun aro, atun sasola.

(2) *Tostak*: Eserlekuak.

(3) *Isetta*: Esegi, eskeki, zintzilik.

(4) *Ojaela*: Jatekoa egiteko arrantzaleen tresna bat.

(5) *Matordua*: Otordua.

(6) *Atzekoa*: arraun-ontzietako nagusia.

(7) *Nausia*: erdiko aize-oiak nagusia.

(8) *Trokoa*: ekaitzetan isegiten zan bela.

(8) "Atako banda": "At", erritik kanporako joera.



Venezuelako euskal mixiolarien batzarra, 1966an.

Lurrun ontziak

LURRUN-ontziak agertu aurretik arraun eta aize-
-oialekin erabilten ziren itsasontziak. Euretati-
ko asko Bilboko erre kara eroan ebezan. Azkenengoa
1926. urtean.

Ez dauka zerikusirik orduko arrantzakaz. Era-
kutsi bat bakarrik gaurko motor-ontziak daukezan
aurrerapenak erakusteko: alkarri jakin erazoten
irradi bitartez atunik dabillenetz inguruan.

Gaurko motor-ontziak agertu aurretik atuneta-
rako eta antxobatarako erabilten ziren ontziak.
Orren ondoren lurrun-ontziak agertuaz zabaldu zan
poza agertzeko.

Naita ondo artu lenengoz, bazitun bere aka-
tsak: lenengo ta bein sarri-sarri ikatza esku-esku
ibilli bearra, gero izurdiaren atzetik joan da geratzen
zen diru koxka. Egia esateko, ala ta be, atsedeen go-
zoa gorputzarentzako.

San Juanak inguruan banakako atun.
Gero alkarrei deika ager danentz iñun.
Uberan(1) barbalata(2) ez gura erantzun,
Santa Klara orduko sardaka (3) edonun.

Atuntzurako onak txalopa aundiak,
Majunbatan(4) treneruak oso egokiak,
Itxaropenez bizi zan arrantzaliak
Pozez beterik zitun ar lurrun-ontziak.

Itxaropen ta pozez ondo artutako
Ontzi au etzan izan guztiz onerako.
Ez tostarteko, ez ta jabearentzako,
Baztertua izan zan mende erdirako.

Naita aurrerapenak egiz asko ekarri,
Ezin ukatu, akats asko zitun sarri,
Gabero artu bear kaian ikatz-arri.
Orra or askorentzat biar nazkagarri.

Kaiara urreratuz eskura ikatza,
Esku-esku ibilliz gaiñera arratsa.
Jaboirik gitxi eta aurpegia baltza,
Orra atunetako bizitza garratza.

Ala ta guzti ere jun-etorrerako
Atseden gozoa zan gorputzarentzako,
Ez arraun, ez izerdi atako-bandako.
Estuasunik бага kaian gaberako.

Ona atunetako bi buruko miñak:
Etxe-errentaren zorra ordaindu eziña
Ta okindegiko koskak(5) kentzeko premiña.
Nola aitak egingo ez du alegiña?

(1) *Ubera*: Ontziak ibileran sortzen eben ur-ebakia, ibia edo ildo.

(2) *Barbala*: atun aldra ibilleran itsas azalean, ura kizkurtuz.

(3) *Sarda*: atun aldra geldirik, ura baltzitzen, antxoa jaten.

(4) *Manjuba*: Izurdearen laguntzaz egiten zan antxoba arrantza.

(5) *Koskak*: dendariak zorren kontaduria eroateko makilla edo ol batean koskak egin oi zituen.

Bolintxeruak

ATUNETA denporan gaztetxoek zaarrekin batera egiten eben txitxarro-sardiña arrantza.

Bolintxeruak bear-bearrezkoa eben bodegaterpeak egiteko Elizak emon eban errextasuna, bere azpiko utsunak eskiñirik 1922. urtean.

Lendik irabazi gitxi eta zelan aurrera egin bost-sei seme-alabakaz illa bi inguruan? Orra or zer dala-ta ume asko amar urtegaz bolintxeru juaten ziren.

Makallau-arbia, masia edo janaria txikitzea zen gaztetxoen lehen lana.

Mende ontako urtez ogeitagarrena
Batzuek erabagi bat artu ebena,
Bolintxeruentzako(1) garrantzitsuena:
Aterpeak eiteko arkupen barrena.

Esan, alkartu ta egin, guztia batera.
Eliza bera jarri, arin egitera.
Urte bi geroago, bolintxeruk era
Sartzen zituen tresnak eliz-aterpera.

Pizarra ta puntero katonaz zakora,
Ikastolako gauzei egiñaz albora.
Goizetikan geroztik bolintxa lepora,
Goseak eraginda gazteik itsasora.

Esku batean arbia(2) bestean zorrotza,
Ol zar baten jarrita dago mutil motza.
Goizean bada, sarri, eguraldi otza
Tiña beteta gero pozikan biotza.

Kalaratuta laster batela uretan;
Orekan(3) zaindu nairik egin erramutan;
Masi zazkarra bera ona txitxarrota,
Masi ona naiago beti sardiñetan.

Nai bada uberatu nai beste sardiña
Lenengo bearra da masiz bete tiña.
Arbi ona txikitzen lana da ariña,
Masi zaskarrantzako naiago makiña

Orekan jarri eta masia zabaldu,
Batelak artu daben jarkera nai zaindu.
Masi indarrez bada arraiña azaldu,
Uberan dagoena sarez inguratu.

Sardin-masiak dira iru-eratakoak:
Berebizizko izenik ez du lenengoak;
"Ona" izena dauko barriz urrengoak.
"Extra" bere izena beti gorengoak.

Ondotik astintzeko lenengo masia,
Goran-goran zaintzeko ona da bestia,
Azalean eusteko "extra" da obia,
Auxe dogu onena dudarik gabia.

Goizez egunsentian, gero gau-ostantza,
Arrain gaiztoa(4) zaigu etorri zalantza.
Sardiña uxatuta goaz etxerantza.
Orra zertako jarri ainbeste-esperantza.

Bolintxero arrantzan kala-aberatsenak,
Lekeitio Erbitxu da ezagunena,
Sardiñaz Deba-Kabra ez da makalena,
Baiñan danen gañetik Sagustan onena.

(1) *Bolintxeruak*: Bolintxe izeneko sarea erabilten eben motor-ontziak.

(2) *Arbia*: Makailluaren arbia, bolintxerako masia, karnata edo janaria.

(3) *Oreka*: Ontziaren egoera zaindu bear zan masia zabal-tzen eban bitartean.

(4) *Arrain galztoa*: Marsopla bezalako arrain galztoak ekar-tzen zitun buru-austeak: uberan egoan sardina uxatu sarea apurtuta.

Sendien udako egoera

Berriz etorriko da dagonil erdira,
Bitartean izarrak ikusiko dira:
Mai lagunak amakin tira eta bira,
Ez jan eta edanak nai beste balira.

Aitatxo juan zanetik atzo Kijonera
Etxean geldi ama umekin batera.
Nai bada gaur ekarri jakirik maiera,
Anaiak urten bear orain bolintxera.

Iruroi lurrun ontzi dirade juanak,
Erri jaietarako etorteko danak.
Naiko izanik ez da sardiñak emana,
Bakotxak egin bear gogoz al ebana.

Eskerrak ala ere bolintxerueri,
Dirua gutxi baña badago janari.
Sardiña eziñean, txitxarro ugari,
Aurrera egiteko beintzat goseari.

Egunerokoa da txitxarro, jakiña!
Okela ikusita «neretzat baziña»,
Txuleta aitatuta «urdailleko miña».
Ona gure udara aberatsen diña.

Mutillaren laguntza ez da ezertako,
Bere irabazia "lauren"(1) partillako.
Gauza aundirik ez da etxe guztirako,
Baña zeozer bada bere gasturako.

Kaltza txikiekin batzuk, besteak billotxik,
Ondartzan ezin eta igai egin nairik,
Soiñekoak agaren azpian utzirik,
Dsangadaka gustora umeak zubitik.

Urdalla bete nairik igesi basora,
Sagastira dakie joan nundik nora,
Ezker eskuma edo aldatzean gora,
Ustelak laga eta zindoak kolkora.

Asko ikusi doguz ta edozelakuak,
Gura badozuz baiña gaur oiñetakuak,
Goxo, bigun ta besteik ez bezalakuak,
Erosi bear dozuz Azkoitiakuak.

Zapatarik ezin ta abarketak nausi,
Jolasean asita laster dira ausi.
Euri zaparradarik gañin bada jausi
Lepotik zintzilizka oi ditut ikusi.

"Ave-Maitako" ezkerro illun abarretan,
Egunero bildurrez jausteko katetan,
Leokadik(2) nai leukez bere eskuetan.
Ezin lortu bait dago amona otoitzetan.

Egun etxeratuta ez da poza baizik,
Berroi egunez ezin ikusi bere aitik.
Gaur osterera beragaz Antiguara pozik
Alaba txikiekin amatxo atzetik.

(1) *Lauren*: gazteei emoten eutsen partilla edo soldata laurdena.

(2) *Leokadi*: Umiei jaurten eutsezen kortzeleku mamua.

Udazkena

Errekaiz(1) epeletan gozo udazkena,
Arrantza goran-beran omen zan zekena.
Gazte, erreztasunez gaur bizi zarena!
Or nolako bizia gure asabena.

Itsasoa lagata mendira joera
Errekaiz epeletan malutak(2) batzera,
Arto saillan ibiliz batetik bestera,
Arratsez baserrira zerbait eskatzera.

Baserrira ezkerro bada zer eskatu,
Artez-arteaz bear bada ataira-urreratu.
Piko edo intxaurrak nai gendukez artu,
Baso bat esne obe, amona parkatu!

Xorta asko bai baiña, zer dozu espero,
Egiz itxura bako dozuzan ezkerro?
Iru bat xorta kenduz zer daukazu gero?
Orrekin patrikarik ezin euki bero (3).

Egunez itsasora antxoaren billa.
Gero bilin-bolaka ekarri barrilla.
Eskuan artu eta zabaldu gatz pilla,
Gaiñetik ipinirik arri biribilla.

Udazkenean lenen egin bear dana
Masi-barrillak(4) ondo garbitzeko lana.
Gero tertzak(5) eiteko nausiaren gana,
"Potxera, subil"(6), eske amo pillo bana

Petrolioz itota zagozen gazteak,
Egur pillaz beteta orduko etxeak,
Goizez jaiki ta batu igar ta ezeak,
Ondartzan batzuk eta basoan besteak.

Arraiñik iñun ez da elurra gaiñetik,
Durundi goxo zabal ezkillaturretik,
Mixiotako deika eliz-kurpitotik,
Sarri erantzun ona mariñel aldetik

Zortzi egunez gero danontzako gaitza,
Obenak esan bear ta abade zietza,
Naita erantzun gura guzurrez ezetza,
Zintzorik emon bear Jaunari baietza.

Euri asko egiñaz, sarri uriola,(7)
Aitzakia ederra uzteko ikastola,
Errekan ikusirik lau intxaur-oskola.
Orreik artzeke ezin gelditu iñola.

Landa ta latziñetan, baita mendien gaiñ,
Ondarru inguruan edonun da gaztain.
Eguzkia sartzen da, mutikoaren zain,
Gaztaiñak erreteko arratserako lain.

(1) *Errekaiz*: egoaizea.

(2) *Maluta*: Atunetarako karnata, artoaren barruko orria edo zurikiña.

(3) Dirua irabazteko edozelako malutak batzen zituenari adarra joteko esakera.

(4) *Masi-barrillak*: neguan besigutarako bear zan antxoa. Noruegatik sardiñetarako ekarten zituzten masi-barrillak (toneles de raba), antxoa gazitu eta gordeteko.

(5) *Tretzak*: Besigutarako palangea egiteko sokak.

(6) "*Zubilla eta Potxera*" ontzi jabeek banatzen zituzten tretzak egiteko sokak.

(7) *Uriola*: Udaldea, uoldea.

Negua

“**E**SAKERAK agertzen deusku, gitxi gorabera, noiztik nora egiten zen besigu arrantza, negu gorrian. Eguneroko eginberrak: berrogei bat metroko soka (zubilla) luzeran eta 0,15 zentimetroko beste soka bat zintzilizka amo ta guztiko aparixuan (tretza); amo bakoitzari antxoba jartea zan enkarnatea. Ortarako goizero arrantzaleen etxekoak bodegara joan bear izaten eben antxoba eske. Enkarnata batera olezko tresna baten banaka-banaka tolestuta jarten ziran tretza bakoitzean.

Lurrun-ontzietako itsasora aurretiko lana, gal-dara berotzea zan. Ondarruko ontziak errekan euk-en lez euren kaia, erreka legortu aurretik askotan ordu bete edo ordu bi aurrera urten bearra izaten eben. "Ixxote" kala entzutetsua 30 milla luzera egotan: orduko lurrun-ontzientzako urruti. Danak batera joaten ziran tretza danak batera jaurtiteko. Deia erriko leku ezagunetan jotzen zan: Ondarroan, elizpeko ate aundian.

Euskal arrantzaleen besigutarako lege batzuk. Batetik norberan portutik ezin lekien urten batera ezik; ez eta tretzak uretara jaurti be turruna (sirena) jo arte; gero bakoitzak nai ebanean jaso eikezan tretzak.

Orduko urtetan, 1927 arte batez be, Ondarruko portuko sarrera bildurgarria zan eta itsaso aundietan, ekaitzetan, sarritan Getariara joaten ziran. Getariarrei eskerrak agertzeko egin oi zan Andra Mari-

tan bazkari bat. Nork esan orduan Ondarru izango gendula arrasteruen kaia?

Sortzez Garbi egunez besigu lenena,
San Antonetan gero sarritan azkena,
Eder jatekoik bada jaki goxoena
Besigua erreta Gabon gabaz onena.

Santa Katalina ta San Anton bitartez
Bizitza gogorra ta irabazi batez.
Bixigu goxo dala esan oi da errez,
Baiña obe lurrean itsasora orde.

Karnata artu bear bakoitzak goizero.
Kanpai otsagaz edo eguzkitan bero,
Lau tretza gitxienez bear egunero,
Treetzaran tolestuz enkarna(1) ta gero.

Galdarak berotuta ontziak gabera,
Gaberdis urten bear askok Ixkotera.
Baiña batzutan barriz mare gora-bera,
Aurrez egin bearra euren urteera.

Besigutan ezagun Ixkoteko kala,
Bertan egokiena barruko egala.
Uberoi(2) ondo artuz, erria ta hala,
Arrantza kala auxe ez dogu makala.

Itsasorako deia gabekoa egiz
Mailluaren otsa da, jo eta jo berriz.
Toki ezagunetan oitura da neurritz,
Durundi zabaltzea iru-lau bat aldiz.

Atako bandan laster joateko daudela,
Erreka zulotatik ego-aize epela.
Negu gorrian egiz obe da orrela.
Norte iparrarekin, nor juan bestela!

Galtzarpean otzara, lepoan mundilla,
Sendia lotan eta aita diru billa,
Itsasorantz luzatu zortzi amar milla.
Eguerdiz aitatxoren zain kaian mutilla.

Etxetik urten eta gaiñean elurra,
Ipar gaiztoak dautso gorritu sudurra,
Otz ikaraz daduzka mami ta ezurra.
Naiz ta gazte arroa, biotza uzkurra.

Egunsenti aurretik kalan egon bear,
Egotik iparrera gero jarri zear,
Tretzak zabal aurretik turrinak(5) deadar,
Gero danak batera sua eta kedar.

Ondo jarri ta gero tretzak txitxaistara,(6)
Ontzia aurrera ta txirristan ubera,
Arri-pendul bitartez ur-goitikan bera,
Zintzilizka geldituz aurretik atzera.

Ordu bi ingurura gero ontziratu,
Kako luze bategaz bear dira artu.
Amuzkia(7) kenduaz ziero garbitu,
Besiguak estanpan otzarako batu.

Kalatxori ta kaio sarritan atzetik,
Ontzitik jaurtitako amuzkia nairik.
Aingeru talde eder dirudi zerutik,
Koroi baten antzera airean zintzilik.

Opularda beltzetan amona elizara,
Elurra mendietan zuri mara-mara.
Txori gogorak egaz, gaixoak lurrera;
Negu gorrian geu be txori pare gera.

Andereak izerdiz goiz-arratsaldetan
Eder etxekoentzat jana preparentan.
Gizon umoak barriz itsaso baltzetan
Eguneroko ogi irabaztekotan.

Kaio eta txirriñak eta beste txorik
Lurrerantz egalez, itsaso igesik.
Ekaitzetik urrunduz giro gozo nairik
Ez dute aize zakar ta elurra baizik.

Umeak ugari ta etxearen otza,
Kalera urten eta iparra zorrotza.
Eguna negukoa izanik ain motza
Etxean sartu eta beti kantu otsa.

Apaitan gurasoak biak ezpai daude,
Geldituko ete dan iñortxo jan gabe.
Txikiak jan dabela ikusirik, barre;
Gitxien jandakoa ostera asarre.

Urtarrillan erditik San Jose egun arte,
Itxaropen aundiaz ager dan bokarte.
Gero lantegietan ume ta emazte
Soldata irabazten San Juanak bitarte.

Askotan ikusi da Jaunaren eskua,
Sinismena dan arren gauza izkutua.
Pixka bat aztertuaz bakoitzak burua
Eskertuko dau berak papardo dirua.

Urte gogorrenetan sasoirik txarrena,
Papardo agertu zan itsaso barrena.
Aurretik jakin barik aren aztarrena,
Urtetan izan jakun laguntzaik onena.

Ona zarren aotik entzundako sarri,
Asko zirala-ibilten estu eta larri;
Ekaitz-tenporaletan zala bildurgarri,
Aukeratuz askotan portua Getari.

Alkarteko barriak garbi diñoskunez,
Gizontasunak beti eskatzen dabenez,
Ondarruko jaietan urtero esker onez,
Bazkai bat ospatzen zan Getari omenez.

Gaurko gure Ondarruk kai ederra dauka
Orain larogei urte egiteban zaunka,
Besigurik bapez ta, jentea asperenka,
Bilbora diadarrez arrasterun aurka.

(1) *Enkarna*: Amo bakoitzari antotxoba jartea

(2) *Uberoi artu*: sondeo.

(3) *Otzara*: otarra.

(4) *Mundilla*: Besigutako tretzak zintzilik eusteko tuntuxa buia.

(5) *Turrinak*: Turuta, adarra, sirena.

(6) *Txitxaista*: Tretzak itsasora jaurteko atzeko karelean egoan tresna.

(7) *Amuzkia*: Karnataren ondarra.



Beti Andonirekin bizi izan zen Puri arreba, garbitzen, 1964an.

Udabarria

UDABARRIAGAZ aldatzen da neguko arrantza. Bai "antxobata" aurretik, bai "atuneta" aurretik, ontziak legorrera jasoten ziran azpiak garbitu eta margotzeko.

Oiturei jarraituz, auts-egunez, txalopa garbitzailerak, jakirik gozoena lez, berreun lapatik gora jatea oituten eben.

Urak otzak egoazen bitartean, Jorraillaren edo Apirillaren azkenerarte, izurdea bagarik, alperrik zan sarea zabaltzea. Izurdeak berak erakusten eban sarea noiz eta non zabaldu.

Zergatik? Urak otzak egoazenean, antxoba urbarruan egoalez, izurdeak bere dsangarazka edo jauziez bildurtu eta gora jasoten eban antxoa: era orretan azalean pillotutako antxoba moltzoari "manjua" deitzen jakon; une ona benetan orixe sarea zabaltzeko. Ori dala ta, arrantzaleen lenengo arazoa izurde sarda bilatzea, bere atzetik joateko.

Antxobatea izan da beti arorik aberatsena. Aitarren partillagaz edo soldataz batera umeak be egunero apur bat irabazten ebelako antxoari burua kentzen: gero emakumeak latetan jarteko.

Ain laburra izanik asteko partilla,(1)
Atusterako(2) zain ardaun-diru(3) billa.
Jai eiteko arduraz kezkatu mutilla,
Aitatxok emon bear zidar biribilla.

Atusteak igaroz gabearen labur,
Nai ta orain artean izan biotz makur,
Udabarri indarrez mami eta azur,
Guztiok pozten gara, neguari agur!

Otzak amore eta beroa nagusi,
Besiguk emon ez da, antxoak ikusi.
Ona udabarria enara eta guzi,
Aurtxoak jolasean ikusi-makusi.

Besiguk agur eta bokartea orain,
Ontziak jaso dira legor-ondarren gain.
Azpiak garbitzeko zuzendaria zain.
Arrantza aldirako gertuteko lirain.

Gure urdalla beti gur-gur auts-egunez,(4).
Txalopa-garbitzaillek aitzetara iges,
Saturraranen lapak billatzeko ustez,
Amaiketan jateko txuleta-ordez.

Epaillaren erdira beti udabarri.
Bokartik ager ez ta estu eta larri,
San Jose egun aurrez artu oi da sarri,
Gaur barriz urten eta iñork ez ekarri.

Urak otzak dirala antxoa da ondun,
Begiak lausotuta ez ikusten iñun.
Sarea labur eta ez da zabaldu nun.
Ez ba jatorku laster ixurdea lagun.

San Jose egunetan manjua(5) arrantza,
Goizetik egon arren antxoaren antza,
Ez bada inguruan ixurda laguntza,
Aldara egin eta baguaz aruntza.

Egunsentia baiño ordu bat aurrera,
Ontzi guztiak goizez zaizkigu atera.
Jarriko dira batzuk ixurdaz batera,
Atzetik sumatuaz euren ibillera.

Egunetan dabilnaz ezin aurkiturik,
Alegin egin arren, guztia alperrik.
Egunsentira dagoz zutiñik jarririk,
Isurdak saltoka ta, manjua ikusirik.

Soroetan indartzen garagar ta gari.
Antxoa azaldu da esker ixurdari
Jainkoak emoniko arrantza gidari:
Sarea zabaldua arraiña ugari.

Urak maiatzerako epelik sarritan,
Laster asiko dira guztiak saritan,(6)
Gero oitura danez goizero urtitan:
Etxeratuta laster portuan despiskan.(7)

Aitak irabazia laburra da sarri,
Eguneroko bear etxean janari,
Eskatu bear bada ogia amari,
Sarritan ekin bear umeak lanari.

Benetan izan arren umien ardura
Irakurgaien orde, traskoak(8) eskura.
Lantegira jun bear, nai ta-amak ez gura,
Nasaitu bear bada etxeko estura.

Batzuk burua kenduz, kopaletan jarri,
Salmueran eukita maiera ekarri,
Latetan tolestuta gero zoragarri,
Nola izango ez da gauz ori jangarri?

Ona izan da bada-ere ixurdan laguntza,
Dirua gorabera bai ondo ez gabiltza,
Naita egun batzutan ederto arrantza,
Astean gelditu da zorretan ikatza.

Ona zergatik diran ontziak baztertu,
Ezin zalako orrela aurrera jarraitu,
Ixurdaren atzetik itsasoa-arrotu,
Orren ondoren zorrak nork lepoan artu?

Ainbeste itxaropen jarritako ontzi,
Lenengo urtietan ondo zan ikusi.
Aurrerapenak baiña, irabazi gutxi,
Mende-erdirako zan, bazterrean utzi.

Ala ta guzti ere ogei ta amar urtez,
Ondo joan ziran gauzak, gizon askon ustez.
Baiña beste indarrak agertu ziranez,
Ikatz-makiña danak jausi ziran berez.

(1) *Partilla*: soldata.

(2) *Atuste*: aratuste (aragi uzte), iñauteriak.

(3) *Ardaun-diru*: partillatik edo soldatatik aparte emoten zan bosteko bata.


(4) *Auts-egunez*: Austerre, garizumako lenengo eguna.

(5) *Manjua*: ur-azalean pillotutako antxoba multzoa.

(6) *Saritan*: urak epeldutakoan malla aundiko sariekin egi-ten zan arrantza gabaz.

(7) *Despiskan*: sarean buruz sartutako antxoba ateratzea.

(8) *Traskoak*: gaziketa fabriketan umiek erabilten zituzten oiñetakoak.



Saturrango apaizgaitegia, 1950ean.

Langosta

LANGOSTERO pillo bat egoanlez, batzuk (euretako bat Mantseo deituraz) urtero joan oi ziran Santander aldera. Langostero pillo bat egoanlez, batzuk, Pasaitik etorren arrasteruari atzetik lotuta, atolan be joan oi ziran. Santanderra eldutakoan, arrasteroak aurrera jo baiño lenago askatu, eta hantxe jaurten ebezan itsasora 60 otzara baino geiago, urrengo egunean euren batelagaz otzarak artzeko.

Olagarroak ikututako langosta saltzea gaitza zanez, marmitakoa egiten eben orrelakoaz.

Egia esateko egun nago bildur
Ezin daiketelako iñoiz egon zigur.
Baiña urteak dira, esan barik guzur,
Langosta arrantzari egin zala agur.

Langosta asko baiña, etsaia geiago,
Aurrera eziñean gelditu naiago.
Gaztetan zale eta zarrez areago,
Besteak laga eta bera bakar dago.

Nai ta urte askotan eutsi langostari,
Irabazi gitxi ta akatsa ugari,
Azkenez utzi eban naigabez lanari,
Begirakun egiñaz gaztain makillari.(1)

Urte asko da baiña eder ibillera
Mantseok egiñiko Santander aldera,
Aitak argi umiei, «emen asko gera»,
Jainkoaren laguntzaz guazen erbestera.

Erbestera joateko zain egoazala,
Jakin eben Pasaitik ontzia etorrela,
Eun otzara sartu ta atoian(2) batela.
Santanderra bakarrik nor joan bestela!

Santanderra elduta jaurti itsasora
gintuzen otzarak, ta ontzia aurrera.
Batelaz urten eben urrengo egunera
Uretako otzarak jasoteko gora.

Arrantza egin eta illa bira gero
Egualdi txarra sarri agorra ezkerro.
Portuan ikusirik ainbeste atunero,
Nok eroango zitun ardura egunero.

Milton Aranbarri "Akulu" deituraz,
Bale lakoxea zan gorputzez itxuraz,
Biotz zabaleko ta zintzoa oituraz,
Berak ekarri eban Mantseo arduraz.

Langosta gorabera nik ez nakiena
Arrantzale batzuek bein egin ebena,
Euren marmitakorik egiz gozoena
Izan zala diñue langostearena.

Arrain batek zaurituz bere agiñekin
Ikusirik zail zala saltzea bestekin.
Erabagi genduan danok alkarrekin
Marmitako eitea langostearekin.

(1) *Begirakun egiñ*: maite den zerbaiti agur egiterakoan sentitzen den pena erakusteko.

(2) *Atoian*: Arresteroari atzetik lotuta.

Garizuma

Pazkokua ta baraua

Gerria estututa praketatik nasai,
Elizak aginduta baroa egin nai,
Okelaren izena aztuta ere bai,
Obe barikuetan eingo bagenu jai.

Epaillak amar eta garizuma-aurrera,
Aste Santu aurretik gagoz biotz bera.
Santuak estalita(1) laster jungo gera
Guztiok maitasunez utsak autortzera.

Baiña autortu aurretik au buruko miña!
Aztertu bear jaku dakigun dotriña(2),
Guk ikusi ez arren itaunen premiña,
Gure Jauna artzeko bear da esamiña.

Erantzunak emonik, eskura txartela,
Iñola pazkukorik ezin ein bestela,
Jainkoaz jokaturik zintzorik orrela,
Ola agertzen eben kristiñau zirela.

Atunen ekarrera

Jendeak ikusirik bere estutasuna
Gizonki artu eban arduratasuna,
Errira ekarteko norberen atuna,
Orduan benetako aberastasuna.

Gizon argi batzuek eben adierazi
Lenbailen bear zala biarrean asi,
Jakiñik ezin zala gerorako utzi
Laster eben ontzi bat, Pasaian erosi.

Ontziak ba zituan biar beste toki,
Etzerako atunak jarteko egoki,
Jabe bakoitzak orlan goizero ba daki
Berenak zenbat diran, saltzeko ederki.

Diru partiue

Jakin nai dabenantzat dagoz kontu milla,
Euretatik ona ta, egi biribilla.
Arrantzale alkartek eiteko partilla
Markiña jun oi ziran prailen diru billa.(3)

Egia esateko osorik da ona
Estu larri alditan bear da limosna,
Ezkerrak jakin barik eskumak emona.
Orra Kristok aginduz laguntzaik onena.

Praillearen dirua beti da eskertzeko,
Arrantzale gaixuei iñoiz laguntzeko,
Eurok emona ere ez da aztuteko,
Mutrikuko lekaimei, gora jasoteko.

(1) Garizuman elizako aldareak eta santuak zapi edo oial morez estaltzeko ohitura zan.

(2) Pazku aldian aitortu eta jaunartzeko dotriña galdetzen zion abadeak eliztar bakoitzari, "pazkukoa egiteko" txartela eskuratzeko gai zen edo ez erabakitzeke.

(3) Arrantzale Elkarateak, dirurik gabe egoazenean, monjetera ere jotzen zuten diru billa, mariñelen artean banatzeko.



Andoni bere etxetik ibaiko mugimenduari begira.

Estropadak

ONDARRUTARREK Donostiarrekin estropadak galdu ta zortzi urtera barriro be aurpegia emon eben Donostiako uretan, bertan ikurriña irabazirik.

Erramu goraberan or betiko gaia,
Estropadan onena nor zan jakin naia.
Nai dabenak ikusi urteroko jaia,
Arraunetan nagusi Donostiko baia.

Ona-arraun goraberan askok ez jakiña
Donostik irabazi ta Ondarruk egiña:
Galdu ta zortzi-urtera eukalez premiña
Donostiatik eben ekarri ikurriña.

Jokua irabazi ta andik zortzi-urtera,
Donostik izan eban barriro aukera,
Naita kaian Ondarruk urten buruz bera,
Baian gauzak atera batekuz bestera.

Kaian dagozalarik gaiñetik esaten:
Erria ondatuta zelan dagoz emen?
Baiña Donostiarrek alegin ein arren,
Kostautik pasa eta Ondarru zan aurren.

Oingo mende onetan oitasei ezkerro
Destaiñak edonundik artu eta gero,
Eskuturrak gogor ta biotzetik bero,
Ondarru agertu zan ikurrin bezero.

Estropada-aitatzean ezin dogu aztu,
Iñor samintzen bada aurretik parkatu,
Politika bitartez ziranak banatu,
Bandera batek zitun, barriro alkartu.


Bizimodua

ONDARROARA kanpotar asko etorri da. Baina garai aietan erritik kanpora joan bear izaten zan. Batez be, Pasaira jo oi zan. Jon Azpillaga bertsolaria be orregatik jaio zen Pasaian, 1935eko azaroaren 26an.

Ezagunak dirade gure goraberek,
Batzutan beartsu ta bestetan aukerak,
Oraintxe erbestetik gaur datozen era,
Ordun geu joaten giñan iges erbestera.

Amazazpi urte ta urdailla nai bete,
Familia osoak zeozeren eske,
Emen diru gitxi ta Pasaian ainbeste,
Naiz maite-izan Ondarru gelditu-ezin geinke.

Mariñelak ez ezik, baita patroï onak
Ezagutuak doguz aurrez joan ziranak.
Zabal-zabalik dagoz askoren izenak,
Izanak diralako arrantzan onenak.



Jose Mari Zirarda Iruñeko artzapezpikuak Andoniri esker onez eskainitako argazkia.

Boga-boga

Zabaldu diralako eretxi okerrak,
Boga-bogari buruz jakin nai susterrak,
Ondo aztertuz gero or-emen bazterrak,
Nai dabenantzat, ona, eretxi ederrak.

Ondarruko mariñel edo arrantzale,
Nolakoak zirela orain berreun urte,
Ondo jakin nai bada, esanak aparte,
Entzun jazotakoak edesti bitarte.

Edestiak zer diñon ondo jakiteko
Elizako liburuak doguz gaur lekuko.
Ittotako artean laroi eguneko
Ondartzan jausten ziran portuan sartzeko.

Erreztasunik ez da, sartzeko keskatsu,
Orren ondorena zan mariñel beartsu,
Bizitzak eraginda izanik bulartsu
Indietako deia artu-eben gogotsu.

Donostitik urten da Antigua agiri,
Bear izango dabe Ama begirari,
Begirakun zoli bat kailerriari(1),
Boga-boga ta agur ondar-bazterrari.

(1) *Kaillerri*: Kai-il-erri, portuko sarreran asko ittotzen zira-lako.

Umeen jolasak

Landa bakoa dala Ondarruko lurra,
Umeak gaztetatik ager da biurra,
Naita goitikan bera mara-mara elurra
Etxean sua eiteko ez da falta-egurra.

Mutiko asko eta jolasleku gitxi,
Bere gogo barruak ezin errez etsi,
Naita beste tokiak gogo txarrez utzi,
Gazte jokolarien leku "guzur-etxi".(1)

Biarra laga eta txanpon eta guzi,
Naita agintariek gogor galerazi,
Joko danen artean "ingeles" nagusi
Ertzainak atzetikan, gazteak igesi.

Egoazen, dirurik jokatu ez arren,
Jolastokira sarri eltzen ziran lenen,
Goitik bera dirua dabela ikusten,
Esku zabalik dagoz beti "kolko"(2) egiten.

Kolko egiñaz diru artu badau garbi
Joka leike bestekin, baiña beti larri.
Eta kiñu egiñaz batek uts badagi
Mutil gizagaixua aren errukarri.

Neskatoen artean batzuk brinko sokan,
Umeenak sarritan naiago "bixikan",(3)
Asitxuagoak asko pozik "txintxirrikan"(4)
Geienak kalez-kale korrika "kurikan".(5)

Mutikoen jolasak dira ezagunak,
Lenengo batu dira betiko lagunak,
Geiago bear bada gero nai dabenak,
Orra zelan joan diran gure gaztegunak.

Goizean asi eta oin "itsu-itsuka"
Baita be asko dabiz gaur "asto-astoka"(6)
Bestean barriz jolas gogor "kalabaka"(7)
Biar goizez eiteko pozikan "arraka".(8)

Ondarru inguruko baserritar guztik
Bildurrez jarten ziran aldrak ikusirik;
Sagar eta kereixak ez da zeresanik,
Guztiak artzen eben astinaldi-ederrik,

(1) *Guzur-etxi*: Gezur-etxe, naizta galerazota egon edozer joko egiten zan aterpe bat.

(2) *Kolko*: Ingeles jokoak eukan askatasun bat; naita jokoa an jardun ez txanpona goruntz jaurtitzera koan esku eta txapela zabaldurik artu zekian edozenbat "txoritxiki", baiña artzeko kiñua egin eta jokoko mutillak oztopo egin eutselako ez ba eban artzen orduan ziran aren lepoan egurrak.

(3) *Bixikan*: sukaldeko tresna txikiekin egiten zan neskatxoan jokoa.

(4) *Txintxirrinka*: txingoan, anka baten gainean ibiltzea.

(5) *Kurika*: batak bestea ikutuz korri egin.

(6) *Asto-astoka*: astoketan, batzuk makurtuta jarri eta besteak gainera edo gainetik salto egin.

(7) *Kalabaka*: kalabetan, batak bestea arrapatzea.

(8) *Arraka*: intxaurrekin edo dana dalakoakin jolastea, batak bestea arra betera (esku zabalaren luzera) inguratuz.

Musikalariak

Izeta gora-beran aitatzean gaia
Errira etortzeko egin zaion deia,
Ondarruan agertuz gelditzeko naia.
Ementxe egin zaion omenaldi jaja.

Irakasle ona bai, baiña piper utsa.
Soiñu-tresnagaz eta beraren laguntzaz
Naiz ikastea izan askoren kurutza,
Musika alkarteak egin eban goruntza.

Bere gogo onagaz erria pozturik
Ez eutsan bape-ukatu musika tresnarik.
Gazte talde polit bat beragaz arturik
Ondarrun etzan falta musika soiñurik.

Ganbara itxurako saioak eiteko,
Antxe gertatzen zitun domekan joteko,
Aleginak eginik ondo erakusteko
Talde bat sortu eban ogeitamarreko.

Gizon abots onekok geroko lagata,
Musikalari onak nola ez izenta,
Euren artean iru abade dirata
Oneik aitatutzea ondo eretxi jata.

Lenengo abadea dogu Gorosarri,
Don Julian gerora jakuzan etorri.
Utsunetan batzuek lagunduz alkarri,
Gabonetako eben Urzelai ekarri.

Zein izan zan onena ez da gauza erreza:
Bata musika kontun izan zan zietza;
Don Julian aparte goxo tiplientzat;
Urzelai koru gaian onena askorentzat.

Beraren lan ederra agertu da sarri,
Egiñaz asko eta kantu zoragarri.
Aste Santukoa da guztiz aipagarri,
Jesusen Pasioa burura ekarriz.

Don Julian gerora agertu zan arren
Mutil txikientzako izan zan azkarren;
Solfeo irakatsiz, bozik ba ekarren,
Egokitzen zituen tiplerik ederren.

Urzelai Anjel jauna gendun Zarauztarra,
Saiotan erakutsiz beti bere garra.
Koru ederrak sorten izan zan bakarra,
Beragaz izan gendun guztiz esker txarra.



Andoni mixioetako umeeekin basoan.

Kantoreak

Abotsa gora-beran asko esan daike:
Ondarrutar kantorek izen ona dauke.
Orfeoi onenetan nork esango leuke?
Tenor asko dirata ezin konta leike.

Pedro Unanue barriz gitxi da aitatu,
Aspaldi ixilikan, ezin baiña aztu,
Omenaldi bitartez nai gendun goratu:
Erri osoa bertan pozikan da batu.

Kantore-ona izanik gazteik erbestera,
Norberak jakin barik batetik bestera.
Alabe, ba ekian etorten etxera
Bere ondarrutarrei poza emotera.

Orfeoirik onena Iruñako zala,
Munduan zabaltzeko gar aundi eballa.
Tenor baten atzetik egiñak einala,
Jakin eben azkenez Ondarrun egoela.

Ondarrutar jaiotzez On Egaña jauna,
Kresalak bustitako eztarri labana.
Ezaguturik doia Jainkoak emana,
Geroztik agertu-eban berak al ebana.

Abots oneko beste bikote bat dago:
Don Carlos ta Don Marcos dirala ta nago.
Biak onak benetan joteko "ordago".
Ezin zigurrik esan zein zan gozoago.

Kantorien artean ondo ezaguna,
Boni "Txikito" danok gogoan doguna.
Entzungarri benetan bere abots leguna,
Bilbo eta Ondarrun askotan entzuna.

Milla bederatzireun ta ogeitalauera
Asi giñan lenengoz joaten zinera:
Bost txotxiki domekan, iru eguenera.
Ala ta be-ezin lortu askotan sarrera.

Osagileak

Bi osagille ziran gure egunetan
Lan egiten ebenak kezkatu benetan.
Gaixorik baegoan erri bazterretan,
Etziren geldituko jun baik egunetan.

Don Luis ta Don Alberto biak dotoreak,
Askorek uste baiño mediku obeak,
Naita asko aurkitu adore gabeak
Ez eutsen iñoiz esan «egin dau zureak».

Batak jarraitu eban aurrera-osagille.
Bestea aldatu zan agin-atazaille
Gazterik ziralako benetan langille,
Biak agertu ziran gaixoen ongille.

Beste osagille bat gura dot aitatu,
Erriak ez dabena bear lez aipatu:
Badauka gizon orrek zergaitik goratu,
Benetan ebalako gizonki jokatu.

Gizon biozti eta biargin zintzoa
Alboratu bagarik bere arazoa,
Berberak egin eban abesti goxoa:
Ain ezaguna dogun "Kristo Lezokoa".

Baita izan genduan bandako zaindari,
Urtietan zabalduz poza erriari.
Giro barri emonaz bere soiñuari.
Atustetan jarriaz erria kantari.

Etorri barri zala ta azken egunarte,
Bere arazoetan beti jo eta ke,
Biotzak irabazten maitasun bitarte.
Ona nolako jauna Silbestre Arrate.

Irakasleak

Berreun ta berroitamar ume gitxienez,
Irakasle bi eta laguntzaille batez.
Nai ta debekatua zigorra egon legez,
Aren laguntza barik irakatsi nekez.

Don Bizente ta Leibar orduko irakasle,
Erdaldun bata eta bestea euskaltzale.
Naita eskolaratu iru-lau bat talde,
Eskolatik igesi asko kaleikale.

Asieraz batera irakasle billa,
laster aukeratu eben jator ta abilla.
Iñori-emon nai bada irakasle-makilla,
Don Jose Basterrari(1) baten ordezt milla.

Asi ta laster eban ondo erakutsi
Bere buru ederra ez eukala utsik.
Oso-osorik eban ezi ta irakatsi,
Ama askoren aurka, atsedan ta guzi.

Umeak pozik baiña gurasoak asarrez:
«Eskola bialduta zelan ata leikez»? (1)
Jolasean ibilliz ordulaun bitartez,
Barrero sartzen zitun ikasteko garrez.

Oraindik entzun bako aitz-zulo gordiña,
Jakintsuen artean deituraz Armiña.
Nai ta ordun ez egon ainbeste premiña
Gazteei irakasteko eiban alegiña.

Ogeita bat mutiko gitxi gorabera
Beldurrez sartu giñan zulo aterpera,
Estalatita batzuk ekarriz etxera.
Irakasle askori ein eutsan aurrera.

(1) Don Jose Basterrari, umeak lenengo aldiz jolastera, errekreora, atera zitulako, gurasoen protesta. 1926ko urtea zan.

Udaltzainak

Ertzaiñetan nagusi Txomin Antigua,
Zaindari ona eta sasi-medikua.
Zaiñetatik gaixorik iñor badijua,
Orretan bera dogu iñor ez lakua.

Bigarrena ezagun deituraz da "Motza"
Gizona ona, eta aundia du lotsa,
Naita txikerra izan guztiz da zorrotza,
Ez nai ene lepoan aren makil otsa.

Uretan txipli-txapla mutillak ugari,
"Matxin plaka"(1) gaiñetik zorrotz begirari.
Umeak pozik dabiz billotxik igari
Kalan erditik(2) barrez euren ertzaiñari.

(1) *"Matxin plaka"*: orduko udaltzain edo aguazil erdaldun bat.

(2) *Kalan-erdi*: errekaeren erdi-unea.

Gaziketa

Ez dakit nik zigurrik nor zan lenengoa,
Marino, Scola edo Parodinekoa,
Dentici ba dakigu dala gerokoa,
Orren atzetik gero dator bertokoa.

Aurrez lan egin arren askotxok fabrikan,
Famili batzuentzat etzan dirurikan,
Italiar batzuei esker, geroztikan
Askok ez eben izan estutasunikan.

Nori eskerrak emon balitz sariketa,
Txapeldun ezpai barik ital-gaziketa,
Nai ta lenengo egin asko barriketa
Laster agertu ziran fabrikak beteta.

Gazte ta emakume umetxoak bardin,
Ondarrun biar ori bazegon nork egin,
Italiarrak pozez ikusiz alegin,
gaziketa kanpora bialtzeko arin.

Emakumeen biarrak

Mariñelen soldata ez dalako zigur,
Biar zer izango dan ama beti bildur.
Umearen urdailla sarri dago gur-gur
Orra arrantzalien historia labur.

Aitak irabazia etxean da ezagun.
Prest dagoz ama asko, osasuna lagun,
Norberen umetxoak baserrira erun,
Aberatsen umeak azteko edonun.(1)

Asko dira errian gure emakumetan
Lan egiten dabenak sarri fabriketan:
Udabarrian jarten antxoak latetan,
Neguan ekiteko gero filetetan.

Ikasi nai dabenak kantu edergarri,
Betor merkaterpera arratsaldez sarri.
Sare-konpontzailleak garbia eztarri,
Entzun gura badozu alboan ezarri.

Zeruak eta lurra» arratsalde baten,
Maitezkoak kantaten» urrengoan eten,
Azken juiziokoak» garizuman sartzen.
Orra soiñu ederrak sareak konpontzen.(2)

Naita "Mari-gizonak"(3) zein lan garratza!
Goizetik joan bear askotan basatza,(4)
Gero sorki(5) gaiñean arturik ikatza,
Otzara bete-bete urrengoan gatza.

(1) Arrantzaleen emazteak, ezkonberriak batez be, aberatsen etxeetara joaten ziran aren umeei bularra emotera, norbere umetxoa basarriren batean lagata. Senarraren irabazia naikoa ez zalako joaten ziran sendia aurrera ateratzeko.

(2) Sareak konpontzen ziardutela ordu ederrik emoten eben bertsoak kantatuz. Geienetan, Iturrinoren «Zeruak eta lurrak». Iztuetaren «Maite bat maitatzen det», askotan. Gaziruman, berriz, Xenpelarren azken juizioari buruzko «Komeni dira bertso berriak», egunero.

(3) "Mari-gizon": Lan garratzak eta astunak askotan egiten zituen emakume bulartsua.

(4) *Basatza*: Lokatza.

(5) *Sorki*: buruan karga eramateko ipini oi zan burutea, baita zapia edo arpillera ere.

Sagardaua

Ondarruren izena iñoiz bada entzun,
Sagardandegietan batez be ezagun,
Edozer sagar mota artzen da edonun,
Erreztasun geiago ezin aurkitu iñun.

Ingurun sagastia dogu aberatsa,
Sagarrez beteriko dirudi baratza.
Naiz landa eder izan naiz izan aldatza
Sagar ederrak batzen emen ez da gaitza.

Basoan egon arren edozelakuak,
Sagardo-ona eiteko begiz jotakuak.
Badagoz gitxienez berroi motakuak
Baiña "Andoain" sagarrak onenetakuak.

Nai badok arin saldu eure sagardaurik,
Eta toxan(1) berotu sagardo dirurik,
Ez egizu tolaran sar "San Frantziskorik",
Ez ta sagar joteko errekaiz girorik.

Kale guztitan zear edonun tolara,
Sagar mota ederrez beteta ganbara,
Mosto ederrez gero sartu bukoitara;
Andik laster geldika basoka atara.

Antxoetarako da oraindik goizegi.
Garizuman urtero lar sagardandegi,
Gitxienez berrogei, ez ote geiegi?
Obe ordez balegoz ainbeste lantegi.

(1) *Toxa*: larruzko poltsatxoa.

Dantzariak

Gure denporetako dantzari onena,
Pelelin batzuentzat, baita Azillona.
Baiña askorentzako bikoitz bizkorrena:
Fausto "Panderito" ta Jose anaiena.

Don Andoni Basterretxea ere ez zen makala dantzan, ezta besteri erakusten ere. Dantzaren bidez egin arazten zien gimnasia Saturrarango apaizgaietara. Aitorpen hau egiten dio Oier Araolaza Arrietak "Gregorio Santa Cruz maisua"ri eskainitako liburuan: "Joseba Etxeberria mendarotarrak bildutako informazioaren arabera, Mutrikun, Saturraranen zegoen apeztegian ere ihardun zuen Santa Cruzek euskal dantzak irakasten. Apaizgaiak izan zituen ikasle eta apaiz ondarrutar baten berri jaso zuen Etxeberriak. Ondarroako apaiza Amerika bidean jarri zen misiolari. Urte askoan Ekuadorreko Los Rios misioan ihardun zuen lanean. Eta irakatsitakoen artean, apeztegian Santa Cruzekin ikasitako dantzak erakutsi zituen abade ondarrutarrak".

Pelotariak

Pelotariei buruz gauzak argi dagoz,
Goiko mailletan beti makal gabiz eskoz;
Gorengoenetako, Gillermo da zestoz.
Ortan beintzat izparrak beti ados datoz.

Astilleruak

Arazo bat daukagu egiz jakingarri,
Aspalditik, anaiok, aztuta orren barri.
Ez gaitzezan gelditu olan lotsagarri,
Orantxe gura neuke burura ekarri.

Ezagutuak doguz ontzi-egilleak
Erri batean baiño bestean obeak.
Naita edonun egon ortako trebeak,
Ugarienak zitun Ondarruk bereak.

Treiñeru-bateletan barriak bitarte
Astilleruak ziran bostetik seirarte,
Santurtzitik asi ta Ondarribirarte.
Emen egiten ziran oindik orain arte.

Moñuk eta barrillak

Gaur aztuta daukagun arazo arrigarri
Nai deusuet oraintxe burura ekarri;
Antxoak zelan ziran «moñotuta» jarri,
Gero tolestatuta barrillan ezarri.

Argi esatekotan esan bear dana,
Orrekin batera zan barrillero lana.
Bakoitzak egiteban berak al ebana,
Sasoian eruteko nausiaren gana.

Bear-bear izanik gaztaiña makilla,
Basora egunero joan bear billa.
Alan be, ez bazara eskuaz abilla:
Ezin biribil jarri osoro barrilla.

Barrillero biarra nai dabenak jakin,
Betor irudimenez plazara nerekin.
Or dagoz oillar biak aurrez alkarrekin,
Amabi bat barrilla obeto nork egin.

Lenen turuta jo ta, oillar irudira,
Gangorra jaso dabe alkarri begira.
Inguruan badagoz naiko ikusmira.
Bigarren turutara saiatuko dira.

Amarretan asi ta, eguerdi ingurura,
Biak eskatu dabe baso bete ura.
Orduak pasa eta ikuslek ardura
Nork gaitutuko ete goizeko postura?

Jakingura bazagoz orra ezizenak:
Bata "Egia" zan ta "Laka" bigarrena.
Alegin bardiña ta bardin eroapena,
Baiña "Laka" k poza ta "Egia" k zer pena!



Geroztik, bi lekameen erdian dagoen Puri Mixiolaria
ere hilik da.

Txomin Agirrereren omenez

Bear dan eran zu eskertzeko
Omenaldi bat nai egin,
Ala ta ere ezin ordaindu
Daukagun zorra zurekin.
Jarri deuskuzuz eredu ederrak
Zeure irakurgaiekin,
Goiko Jaun eta gure Ondarru
Izan zenduzan ikurrin,
Zeru ortatik lagun eiguzu,
Lagun Agirretar Txomin.

Tafallako zaarrak

Erritikan onera
Gogoz etorrira
Tafallan nago orain
Euzkitan jarrita.
Ondarrura joango naiz
Pozik ibillita
Datorren urterako
izena itxita.

Ordua etorrira
Maian gara jarri
Begirakun goxoa
sukaldera sarri,
Betikoa ete dan
Edo gauza barri,
Edozer bada ere
Ugari ekarri.

Gaixo egonagaitik
Gizon ta andrazko
Ez da elduten sarri
Jatekorik naiko
Arraina komenita
Barrura oillasko
Itxuraz gure artean
Ez da gaixo asko.

Ez dait nabillen zuzen
Edo okerreta
Esteak euki arren
Guztiak erreta
Jan barik ezin egon
Marmitako da eta
Naita eskatu gero
Amar errezeta.

Biotz askorentzako
Orra zer dan miña
Gauza asko nai eta
Ezer lortu eziña
Askok nai leuke izan
Emengo erregiña
Baiñan ortarako da
Burgoa Balbiña.

Meza entzun da laster
Maiera gosari,
Euzkitan baltzitzuta
Aurrera bazkari.
Biotz-biotzetikan
Sukaldekoari
Bear dautsaguz emon
Eskerrak ugari.

Urteko illetatik
Au da iraila
Ona etorri gara
Osasunan billa.
Nai badozue jakin
Egi biribilla
Poltsikadan daukenak
Gaixoen pastilla
Ikusi ditut jaten
Naiko arrautz-pilla.

Sarri entzuna dogu
Gauzaik ederrena
Gaixo guztientzako
Dala "rrejimena".
Baiña bear dot esan
Egi bat aurrena
Ikusirikan gure
Este ta barrena,
Iruntsiko geunkela
Osorik zezena.

Ederto ibillita
Baguaz etxera
Geure lobatxueri
Poza emotera.
Datorren urtean be
Udaraz batera
Asko dira juango
Ara ta bestera,
Baiña gu Tafallara
Etorriko gara.



Venezuelan egazkinen zelaian.

Lagunei afari ostean

Nire aurka eiteko bihar edo etzi
Bertso lanetan orain bear dozu asi
Bertso liburuetan ekin ta ikasi
Bestela ezin zeinke neri irabazi.

Egiñalak ein arren bertsoak itsusi,
Ezin zeinke zu izan emengo nagusi,
Ez zaitut nik sekula bertsoan ikusi,
Aurrera be lortuko dozu sari gutxi.

Gaur osterara esan lei arro zatozela
Irabazteko ustez emengo txapela,
Naiz ta izlari ona, dakigun bezela,
Beti agertu zara bertsolari ergela.

Biotz-biotzetiko Jose Mari jauna,
Aspalditikan daukat nik zuri esana,
Ez dala ain erreza bertsolari lana,
Zerbait ez badaukazu Jainkoak emana.

Juanito Baleustegi nere lagun zarra,
Naiz ta musika kontun zu izan azkarra
Aspaldi galdu dozu bertsolari garra,
Barriz ortan jarteko edaizu pattarra.

Erantzun egidazu Luziano maite,
Koajutor berriakin Berrittun noiz arte
Asko ibillia ta orain ez ain gazte.
Kalaorran obeto egongo zerate,
Emilio parroko ta zu monjen alkate.

Emen etorri gara guztiok
Egin daigun jan ta edari,
Emen ez zaigu ezer faltako
Esker presidenteari.
Goizetik otoitz-arren sakonak
Ta gero meza opari,
Mai inguruan orain lagunok
Biotz-biotzez kantari,
Zar guzti oien aldetik artu
Faustino esker ugari.

Bazkari on bat emen eiteko
Aspaldi egon gara zai,
Biotzak beti esaten zigun
Alkartuko giñala bai.
Ori dala ta gaurko egun au
Pozarren artu dogu jai.
Gauza andirik ez dogu eskatzen,
Inddar, odolki ta urdai.
Alkarrizketa gozo-samur bat
Guk besterik ez gendun nai.

Amaren aurtzaro latza

Biotzez parkatu bai,
Ez aztu oraindik,
Egun baten izekok
Neri egin eustanik,
Oraindik amar urte
Ez nula besterik

Itsaso asarre
Eta zeru goibel,
Egualdiaren antzo
Izeko Isabel,
Ni egunero "gur-gur"
Urdaill eta sabel.

Euria jasan eta
Atzetik txingorra,
Arren adi eidazu,
Jaun errukiorra,
Ez dadin neri jausi
Izekon zigorra.

Goizetik urten eta
Etxetik aparte
Pozik ibilli nintzan
Eguerdira arte,
Goimendietan baita
Erreka bitarte.

Ogetamabost ardi
Eta iru bildots,
Gau lenean etxera
Biotzetikan otz,
Izekon arpegia
Ikusirik zorrotz.

Gau lenean eskerrak
Ene osabari,
Galdutako ardia
Aurkitu ebanari,
Alde egin nun andik
Jainkoa gidari.

Ondarrura etorrita
Ezagunikan ez,
Orduko nere egoera
Ezin esan errez,
Sartu nintzan neskame
Osaba bitartez.

Olako andra onik
Ez dot ezagutu,
Bera goratzen sarri
Gelditu iaiz mutu.
Goiko Jauna eskertzen
Biotza jat urtu.

Lenengoz ikusita
Biotzean arra,
Geroztikan egiñaz
Pozikan negarra,
Bera izan jat beti
Maitale senarra.

Bateoa

Sakramentuetan disdiratsua
Bateoaren izarra.
Iturribarri onek dakarkit
Zeru goitiko indarra.
Naiz ta aurkitu eriotz aurre,
Nekez datorkit negarra.
Sinismen argiz dakustalako
Aurrez Jaungoiko bakarra.

Pekatarien artean, baiña
Jon Bateatzaille lagun,
Jordanen sartu ezkerotikan
Jainko zarala ezagun.
Goian zeruan odei artean
Uso zuria dirdaidun,
Durundi gozo Aitaren itza:
«Zu zara-ene seme kutun».



Andoni Nekane arreba mojarakin.

Eskeintza

Artu eiguzu Zeruko jauna
Umeen gaurko eskeintza:
Ezin daikegu alaitasunez
Beste izkuntzarik mintza.

Ogi-ardoak zerurantz doaz
Biotzaren lurrun-gisa,
Otzaratxoan jaki egiñik
Itsas-gizonen ekintza.


Jolas tresnekin batera artu
Guztion izerdi bitsa,
Liburu eta arkatzak, orra,
Eguneroko bizitza.
Zure menpean bizi nai dogu
Emoten deusugu itza.

Alelluia

Zugatz eta larrak,
Aran eta ibarrak,
Zeruko izarrak
Zuk egin dozuz.
Baiñan, baiñan,
Pitxirik ederrena,
Loreik politena,
Jauna, zeuretzako
Aukera dozu.

Itsaso-ibaiak,
Mendi ta zelaiak,
Txori kanta-alaiak
Zuk egin dozuz.
Baiñan, baiñan,
Kabirik beroena,
Biotzik xamurrena,
Jauna, zeuretzako
Aukera dozu.

Arrain eta egazti,
Abere ta pizti,
Illargi, eguzki
Zeuk egin dozuz.
Baiñan, baiñan,
Neskarik ederrena,
Amarik onena,
Jauna, zeuretzako
Aukera dozu.



Andoni futboleko bi taldeekin.

Misio eguna

Jesus zerura igo zanetik
Zuzen jokatu balitza
Ezagunagoa izango jakun
Munduan kristau eliza.
Ala ta ere gaur oraindikan
durundi da Jainko Itza:
"Aita, Seme Espiritutzaz
Gizon guztieri mintza".

Argi ta garbi emen daukagu
Kristau guztion ekintza,
Zintzo jokatur saia gaitez
Misiolari lez bakoitza.
Urrutietan batak itz egin
Besteak emon bizitza.
Guk emen otoitz, zeruetako
Irabazi daigun giltza.

Jaunartzean


Eder janaria, soroko garia,
Eguneroko izerdi saria.
Aingeru taldeak goian abeslari
Guztion opari dan Jainko bildotsari,
Esker onez lurrean biotzak kantari.

Matsaren ondoa, zeruko ardoa,
Aingeruen edari gozoa.
Aingeru taldeak goian abeslari
Guztion opari dan Jainko bildotsari,
Esker onez lurrean biotzak kantari.

Ur garbi bizia, garden iturria,
Biotz garbidunen egarria.
Aingeru taldeak goian abeslari
Guztion opari dan Jainko bildotsari,
Esker onez lurrean biotzak kantari.



E - der ja - na - ri - a so -
Ma - tsa - ren on - do - a ze -
Ur ar - gi bi - zi - a ga -



ro - ko ga - ri - a e - gu - no - ro i -
ru - ko ar - do - a ain - ge - ru - en e -
roen i - tu - rri - a bi - otz gar - bi du -



zer - di sa - ri - a Ain - ge - ru tal - de -
da - ri go - zo - a
nen e - ga - rri - a



ak go - ian a - bes - la - ri



guz - ti - on o - pa - ri dan



Jain - ko bil - do - tsa - ri



es - ker o - nez lu - rre - an



bi - o - tza kan - ta - ri.

Lenengo jaunartzea

Lore-txortagaz ager dabela
Zuganako garra Jauna,
Eun ta zazpi ume oneikin
Ondarru jatortzu dana.

Amabi txorta: usain, kolorez
Naita berdiñak ez izan,
Kale guztiak datoz zugana
Anaitasunaren gisan.

Gure baratzan alegin arren
Ez dogu billa oberik,
Erriarentzat ez genduke nai
Bakea beste lorerik.

Kale-andi, Kamiñalde,
Txomin Agirre, Pixape,
Iñaki deunagaz batera,
Nasa kale ta Erribera.

Kafeko atzi ta Kantxope,
Zubiaurre, Itsas-aurre,
Antiguako Ama, egidazu,
Iparragirre, Ipar kale.

Txori-erreka, San Juan Txurru,
Arana Sabin, Madalena,
Artibai, Zaldupe ta
Artabide da azkena.
Ona Ondarruko kaleen izena.

Urrezko ezteguak

Asaba zarren oiturak zainduz
sarri dogu alkarrekin
Bizitzarako gertakizunak
Baketasunez jai egin:
Bateo eta gure Jaunartze,
Gazteen ezkontzarekin.
Illetetan be oitu izan da
Janari bat senidekin.
Senar-emazten urrezko eztegiak
Ez al du merezi bardin?

Berrogeitamar urte dirala
Ementxe ziñen alkartu.
Eskerrak gaur be, gure jaun onak
Emen nai zaitue artu.
Urteak joan, urteak etorri,
Aldiz zarie zaartu.
Ala ta ere, seme-alabak
Ez zaitue nai bazartu.

Adanengandik gaur egun arte,
Ona egi ezaguna:
Gizonak ondo merezi dula
Bizitzarako laguna;
Bakoitzarentzat emazte ona
Izanik laguntasuna.
Esan liteke Jaunak dautsula
Emon komeni zaizuna.

Bizitzak bere goraberetan
Daukazan poz-naigabetik,
Iñork bezela dasta dozue.
Batetik eta bestetik
Kristoren antzo joka dozue,
Beti Aitaren bidetik.
Naita sarritan gurutz-astunak
Eroan zeuen lepotik.

Gurutze barik etzan izango
Zoriontsu biztuera.
Zeuen izerdiz lortu dozue
Gaur emengo egoera:
Seme-alabak illobarekin;
Pozez beterik, gaiñera,
Ikusirikan zeuen alaba
Begoñaren jokaera.

Millaka esker emon bearrez
Aurkitzen gara gu emen.
Bere arloan gabiltzazanok
Esker emon bear lenen.
Maite-bideak artuez gero
Joka dozuenok zuzen,
Jaunak guztiok artu gaitzala
Betiko zorian. Amen.

Gabonetako kantarik

Kristau guztiontzako atsegiña "Gabon",
Barruko pozik barik ezin alai egon,
Gogo onekoeri biotzez zorion,
Jakiñik estalpean gaur gabaz nor dagon.

Aingeru aldrak zerutik
Goi zorion abesturik,
Artzain taldea Belen aldera
Gabon goiz-goizetik:
Andra Maria batetik,
Gure Joxepe bestetik,
Lasto gaiñean Jesus umea
Ezin lo arturik.

Idia eta astoa,
Arrantza euren kantoa,
Seaskatxoan etzanda dago
Jesus umetxoa,
Otzez dardaraz dalarik
Arnasaz berotu nairik.
Iñoren laguntza barik dago
Jaungoiko izanik.

Aingeru aldrak zerutik
Goi zorion abesturik,
Artzain taldea Belen aldera
Gabon goiz-goizetik.
Bi milla urte dira igaro
Aurtxoa jaio zanetik,
Eskeiñitako bere bakea
Ez da ageri iñundik.


Idia eta astoa,
Arrantza euren kantoa,
Seaskatxoan etzanik dago
Jesus umetxo.
Maitasunaren indarrez
Garaiturik gorrotoa,
Eguberritan goza dagigun
Bakezko giroa.

San Joanetako kantak

Suak amaitu eta bakoitza bere alde
Ezagunenak dira iru-lau bat talde
Oiturari jarraituz kantun kalei-kale
Astilleru, kanttoipe eta kamiñalde.

Astilleru ta Kanttoipe,
Kamiñazpi, Kamiñalde,
San Juan bezperan suak eiteko
Beti prest gerade.
Gazte eta ume talde
Goizetik eta arratsalde
Pozik gabiz gu oiu egiñaz
Bakoitza bere alde.

Azpitik zugaitz adarrak,
Gaiñetik egur igarrak,
Abe ondoan pilloturikan
Tresna zar ta abarrak.
Gora astilleruko larrak.
Gora kanttoipeko garrak.
Umeak pozik, gazteak alai,
zoraturik zarrak.



As-ti-lle-ru ta kant-toi-pe ka-mi-ñaz-pi ka-
Az-pi-tik zugaitz a - da-rrak ga-ñe-tik e-gur



mi-ñal - de San Juan bez-pe-ran su-ak ei-te-ko
i - ga - rrak a - be on-do-an pi-llo-tu-ri-kan



be-ti prest ge-ra - de gaz-te e-ta u-
tresna zar ta_aba - rrak. Gora_asti-lle-ru-



me tal - de goi-ze-tik e-ta_a - rra-tsal - de
ko la - rrak go-ra kant-toi-pe - ko ga - rrak



po-zik ga - biz gu o - iu e - gi - ñaz
u - me - ak po - zik gaz-te - ak a - lai



ba-koi-tza be-re_al - de -de.
zo-ra - tu-rik za - rrak -rrak.



Andoni oso-osorik.

Antiguako Ama

Antiguako Ama,
zeruan illargi
bizitz atsekabetan
gure poz-iturri.

Zeru-goi beltz, ipar laiño,
negu gorri-gorritan
aize-bolada zakartsu
itxas-ekaitzetan.

Gure indar-eutsigarri,
itxaropen, bakea,
etsaien aurka babesa,
erri-jagolea.

§



An-ti-gua-ko A - ma ze-ru-an il-lar-



gi— bi - zitz a - tse - ka - be-tan

Fin




gu - re poz i - tu - rri.

Adia

Estrofa



Ze-ru goi-beltz i-par lai-ño ne-gu go-ri



go - rri-tan ai - ze bo - la - da

§



sa - kar - tsu i - txas e - kai - tze - tan.

Abestu daiogun alleluia

Abestu daiogun alleluia,
abestu daiogun alleluia,
alleluia, alleluia, alleluia.

Zugatz eta larrak,
aran eta ibarrak,
zeruko izarrak
Zuk egin dozuz baiñan,
baiñan pitxirik ederrena.
loreik politena,
Jauna,
Zeuretzako aukera dozu.

Itxaso ibaiak,
mendi ta zelaiak,
txori kantalaiak
Zuk egin dozuz baiñan,
baiñan kabirik beroena,
biotzik xamurrena,
Jauna,
Zeuretzako aukera dozu.



A - bes-tu dai-o-gun a-le-lu - ia a -




bes-tu da-io-gun a-le-lu - ia al-le-lu -



ia al-le-lu - ia al - le-lu - ia.——

Estrofa



Zu - gatz e - ta la - rrak
I - txa - so i - ba - iak



a - ran e - ta i - ba - rrak ze - ru - ko i -
men - di ta ze - la - iak txo - ri kan - ta - a -



za - rrak Zuk e - gin do - zuz bai -
la - iak Zuk e - gin do - zuz bai -



ñan bai - ñan—— Pi -
ñan bai - ñan—— Ka -



ñan bai - ñan ————— Pi -
ñan bai - ñan ————— Ka -



txi - rik e - de - rre - na lo - reik po - li -
bi - rik be - ro - e - na bio - tzik xa - mu -



te - na Jau - na Zeu - re - tza - ko
rre - na Jau - na Zeu - re - tza - ko



au - ke - ra do - zu. A -
au - ke - ra do - zu. A -

Aurkibidea

Sarrera	7
Zenbait oroitzapen	15
Kantuan	17
Txikitan	17
Zineko artista	21
Abadegai Saturraranen	24
Afrikara soldadu	28
Apaizgaien irakasle	33
Mixiolari Los Riosera.....	35
Azkenik, sorterrira	37
Umekiko jardunak	39
Oporrei begira.....	41
Oporretan aurrera	42
Atsedenaldiak	44
Zerbait egin bear oporretan.....	45
Ikasturtearen asiera.....	46
Jolasak.....	48
Gose eguna.....	49
Los Riosko Misioak	51
Erriaren sorkera	54
Oillagorraren eiztaria	55
Oglaren izatea.....	56
Kantua	59

Sorgin kontuak	63
Kuban sorgiñak	65
Gixona ondu	66
Katu baltza	66
Señeru	68
Kortxeleko mamua.....	68
San Jeronimoko dama	70
Errenteriko txarrixak	71
Gertaerak	73
Txibieru	75
Naranja saltzaillea	76
Burtseñako gaztea	79
Faustino Akarregi	81
Bergarako txoferra	82
Txisto arrantza	83
Aingeru jagoleen eguna.....	85
Ibargungo txarrixa	88
Bertsoak	97
Bertsoen gaia.....	99
Agurra	100
Attitta eta amama	101
Atun arrantza	102
Atuntzu	104
Lurrun ontziak	107
Bolintxeruak.....	109
Sendien udako egoera.....	112
Udazkena	114
Negua	116
Udabarria	122
Langosta.....	127
Garizuma.....	129

Estropadak	132
Bizimodua	134
Boga-boga.....	136
Umeen jolasak	137
Musikalariak	139
Kantoreak.....	142
Osagilleak.....	144
Irakasleak.....	146
Udaltzaiñak	148
Gaziketa	149
Emakumen biarrak.....	150
Sagardua	152
Dantzariak.....	153
Pelotariak	154
Astilleruak.....	155
Moñuk eta barrillak	156
Txomin Agirreren omenez	159
Tafallako zaarrak	160
Lagunei afari ostean	164
Amaren aurtzaro latza	166
Batea	168
Eskeintza.....	170
Aleluia	171
Misio Eguna.....	173
Jaunartzean	174
Lenengo Jaunartzea.....	176
Urrezko ezteguak	177
Gabonetako kantak	179
San Joanetako kantak	181
Antiguako Ama	184
Abestu daiogun alleluia	186

Auspoa-ren bizkaierazko liburuak:

Balendin Enbelta:

Nere apurra, 1974, (117-118)

Basillo Pujana:

Egi batzuek aixetaratzen, 1986, (191)

Deabruak ostutako urteak, 1991, (211)

Oiuak, 1997, (251)

Jose Maria Etxaburu:

Neure lau urteko ibillerak, 1989, (199)

Ondarroa'ko kontuak, 1995, (226)

Faustino Etxebarria:

Nor garan azaldu, 1990, (208)

Nire gazte denpora, 1996, (237)

Lino Ayesta:

Gure izkuntzaren mugatik, 1992, (217)

Ikusiak eta entzunak, 1997, (245)

Jose Manuel Etxebarria:

Zeberrioko kantak, 1999, (259)

Tomas Gerrikagoitia:

Arantza eta larrosa, 2000, (269)

Andoni Basterretxea:

Ene Ondarru, 2000, (270)



1051108

G-129/19



Don Andoni Basterretxearen liburu honek "Ene Ondarru" du izena, eta izana ere halaxe du: Ondarru.

Ondarrun jaio, hazi, bizi, heldu eta ondu den jaun honen Ondarru duzu liburua. Urte batzuk hemendik kanpora pasatu baditu ere Don Andonik, ia bizitza osoa Ondarruren bueltan egin du gure gizonak.

Beraren haurtzaroko eta gaztetako Ondarru duzu liburu honetakoa. Sarekonpontzaileen kantu-eskola ez da oraingoa; ordukoa da. Urtesasoin bakoitzaren arabera andreak hor kanta eta kanta, beren lantokia euskal-eskola bihurturik. Beste haren artazuritzailleak gogoratzen du. Ordukoak diren bezala sagardotegiak eta sagastiak eta sagar-lapurrak. Ahoz-aho dabilzan sorginkeriak ere ordukoak dira. Gaur bes-telako sorgin batzuk ditu jendeak hizpide.

Ikusiko duzun bezala, irakurle, gauza batzuk jaso egin ditu "Ene Ondarru" horretatik; baina beste batzuk sortu egin ditu. Hor aurkituko dituzu orduko gauza eta pertsona asko eta asko bertso politetan kantatuak, eta hitz labor eta zehatzetan kontatuak.

Liburu honi muzin egingo dion ondarruarrik ez da jaio. Ez-eta jaioko ere.

ISBN 84-95378-21-3



9 788495 378217

